

**M15 MUGIMENDUA**

Boterea desafiatzea helburu

Hala Bedi

Irrati beteranoa
euskara hutsezko
emisioa sortzeko
kanpainan

**Frankismoko
krimenak**

Erantzuleak
Argentinako
epaitegietara
eraman nahi dituzte

Éric Guéret

La Mort est dans le Pré
dokumentalaren egilea


«Laborantza
intentsiboak
gosetera eraman
du mundua»

lhesi

Euskal Herriko
itsas labarretan
hiru txango

**Eskola Txikien
Festa**

Nola antolatu
ospakizun bat
ingurumena zainduz



ARTEA
ARTE



BURDINA
HIERRO



GASTRONOMIA



HISTORIA



ITSASOA
EL MAR



NATURA

GM

Gipuzkoako Museoak

www.gipuzkoakomuseoak.net



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Kultura, Gazteria eta Kirol Departamentua
Departamento de Cultura, Juventud y Deporte



Azaleko argazkia:
LANDER ARBELAITZ
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarte. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaina Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



Deabruaren abokatua

- **Francis Diez:** «Desioa hiltzen ari gara». SUSTRAI COLINA / 4

Asteko gaia

- **M12-M15 protesta globala.** Zehatzagoa, eta oraindik jendetsua. LANDER ARBELAITZ, GORKA BEREZIARTUA / 5

Pertsonaia

- **Éric Guéret:** «Nork ordainduko ditu industria kimikoaren sarraskiak?». SUSTRAI COLINA / 10

Gaiak

- **Gipuzkoako Eskola Txikien 25. Festa.** Bestondorik utz ez dezan. ESTITXU EIZAGIRRE / 16

Iritziak

- **Zirtak** Urruti gabe. JOSE INAZIO BASTERRETXEA / 19
- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 21
- **Gure M-15.** KATTALIN MINER / 22
- **Txandan** Denon ongia. JUANRA MAKUSO / 22
- **Elkarbizitza** norekin eta norentzat? AINHOA LARRAÑAGA / 23
- **Hiruko txikian** Gehiegizko. JOXEMARI OSTOLAZA / 23
- **Bertso berriak** Autoterapia. IZAR MENDIGUREN / 24

Erdiko kaiera

- **Haur eta gazte literatura.** Bazterrekoak, kanonizatuak eta azterketa tematiko berriak. MIEL A. ELUSTONDO / 25
- **Espazioa eta Gorputza.** Esanahi berrien bila, biluzik. MYRIAM GARZIA / 28
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 30 • **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32 • **Abarrak** MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 33
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34
- **Ihesi** Gure ertzetan / 35
- **Zumaia (Gipuzkoa).** Harri azpian begira. ONINTZA IRURETA AZKUNE / 36
- **Hendaia (Lapurdi).** Kostaldeko gotorlekuak: itsasokoak ez ziren enbaten zain. AMAIA UGALDE BEGOÑA / 38
- **Urpeko mundua.** Erreinu isilean bisitan. UNAI BREA / 42
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 46
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 47
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 48

Termometroa

- **Diktadurako krimenak.** Frankismoa epaituko al du Argentinak? GORKA BERAATEGI / 49
- **Hala Bediren egitasmoa.** Euskara hutsezko emisioa helburu. MIEL A. ELUSTONDO / 52
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE / 54
- **Maltzagatik** XABIER LETONA / 55
- **Net Hurbil** Medikua jauna: botika gehiago ez, entzutea eskatu dizut. PELLO ZUBIRIA / 56

Azkena

- Hainbat maite izan baititugu. AINGERU EPALTZA / 58



“Desioa hiltzen ari gara”

Francis Diez

Desioan doktoratua.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

Desio naiz, desio haiz, desio du, desio dugu...

Ase ezina izaki desioak abentura eskatzen du, eta abenturak jakinmina. Jakinminak bereizten ditu zonbiak eta gizaki bizidunak, ez oroz gainetik lehenesten den ziurtasunak.

Bai, esadazu ziurtasun ezak dakarrela askatasuna.

Gure muga handienak ez daude ez poliziarengan, ez estatuan, ez Nazioarteko Diru Funtsean: gudan daude. Amildegiaurrean beldurtuta gaude, baina ez gaitu amildegia ikaratzen, leku ezezagunetara iristeko hegan egiten ikasteak baizik.

Horixe bakarrik behar genuen: hegan egiteko ikastaroetan izena ematea!

Gizarte eta erlijio guztiak saiatu dira desioa deuseztatzen. Zer da kontsumoa, desioaren plazeboa ez bada? Desioa hiltzen ari gara, baina zaude ziur hurrengo desioaren iraultza izango dela.

Krisiaren plazeboak izango zarete zuek. Garaio-tan, disko-liburu bat ateratzea ere...

Erori behar badugu izan dadila hogeigarren pisutik. Lehenbizikotik jausita 2.000 ostia hartu behar dira hiltzeko.

Musikarien egoa 20. pisua baino gorago dago, konpai!

Bost lorek autoestimua igotzen dizute, baina hogeirekin lerdotzeko arrisku gorrian zaude.

Hankak lurrera iristen ez zaizkizunean sartzen duzu hanka. Gizakia hobeto prestatuta dago kritika negatiboei aurre egiteko gehiegizko loreak jasotzeko baino.

Orain ulertzen dut zergatik...

Musika eta mendia dira nire bi pasioak eta askoz lagun gehiago hil zaizkit musika munduan mendian baino. Esan dezatela alpinismoa arrisku handiko kirola dela!

Baina itxura batera hain zarete bereziak, hain guaiak, hain jatorrak, hain benetakoak, hain...

Ez sekula nahastu artista baten ageriko obra bere eguneroko izaerarekin. Nire musikari kuttunenak putaseme batzuk dira bizitzan, baina niri bost, inporta zaidana ez baita zer diren, zer egiten duten baizik.

Eskerrak zu oholtzara igo aurretik transformatzen zaren!

Artista askok diote: “Ni berdina naiz oholtzan eta tabernan”. Oso ongi, orduan tabernan ikusiko dugu elkar. Niri ezinbestekoa zait transformatzea, egoa kamerinoetan uztea. Egoa gure buruari jartzen diogun muga sorta baita.

Ongi kontatutako gezurra ere ederra dela, alegia.

Kontzertuak errito garaikideak baizik ez dira, eta gu jendeak bere kaka guztia ateratzea ahalbidetzen duten txaman modukoak. ■



M12-M15 protesta globala

Zehatzagoa eta oraindik jendetsua

Protesta globala egin du M15 mugimenduak maiatzaren 12tik 15era. Milaka lagun batu dira munduko 50 hiri baino gehiagotan, Euskal Herrian barne. Ez du arrakasta bera izan leku guztietan baina Espainiako Estatuan arnasa hartu du berriz; protestaren epizentroa Madrilgo Sol plaza izan da. “Mantso goaz, urrutira goazelako”, diote han bildutakoek.

LANDER ARBELAITZ

GORKA BEREZIARTUA

Argazkiak: Lander Arbelaiz



“Maite zaitut demokrazia, egongo ez bazina bezala delako”.

BOTEREAN DAUDEN bi alderdiek ez dute masa sozial hau ordezkatzten. Jendea nazka-nazka eginga dago herritarrei lagundu beharrean bankuak erreskatatzen dituzten gobernuekin, finantza-erakundeekin diktadoreekin, etorkizunik eskaintzen ez dien sistemarekin. Hala adierazi dute Sol Plazara lau norabidetatik sartu diren manifestaldietan. Urtebetetzea aitzakia hartuta, M15a indartsu itzuli da eta gizartearen babes zabala duela erakutsi du asteburuan.

Baina jendea kalera ateratzea garrantzitsua den arren, arriskua dago mugimendua argazki ikusgarria baino ez izatekoa, esaldi irudimentsuak baino ez, inon lur hartzen ez duten eskakizunak. Arintasun irudi hori eskaini dute Espainiako hedabide nagusiek iazko

maiatzeko kanpaldiek eragindako harridura gainditu dutenean; M15ari buruzko estereotipoak zabaldu dituzte, gaztelaniazko “*perro-flauta*” etiketa kasu: kalean, zakurra lagun, txirula jotzen duen lumpenaren mailara murriztu nahi dituzte manifestariak. Irudi onberagoa eskaintzen dutenek berriz, hainbeste jendek horrelako zerbaitean parte hartzea azaltzeko, alderdi politikoek espainiarren artean daukaten prestigio falta azpimarratzen dute eta alde batera uzten dituzte mugimenduak hasieratik eduki dituen aldarrikapen sozialak –horiek martxoaren 29ko grebako istiluekin lotu dituzte, protesta “zintzoa” eta “gaiztoa” desberdinduz–.

M15a desaktibatutzat ere jo izan dute 2011ko urriaren 15eko mundu mailako manifestazioez geroztik ez zuelako agerpen jendetsurik egin. Ez da geldirik egon ordea, orokorretik zehatzera jo du. Asanblada irekiak egiten jarraitu da negua pasa bitartean, komisiio eta lan talde ugari sakabanatuta, herriz herri, auzoz auzo. Ez da hain lan ikusgarria, ez du hasierako lilura sortzen, jende gutxiagok parte hartzen du, baina bizi-bizirik dago. Mugimendu barruan zatiketak egon dira, iazko maiatzaren 15eko manifestazioa bultzatu zuen Democracia Real Ya! (DRY) plataformak izan duena kasu. Kide ezagunenetako batzuek –bozeramaile lanetan aritu den Fabio Gandara, besteak beste– elkarte modura erregistratu zuten DRY, baina plataformako kide gehienek bide horretatik jarraitzeari uko egin diote, alderdi politikoei leporatzen dieten ordezkaritza-logika imitatzea lekarkeelako. Elkartea erregistratu zutenak DRYtik kanpo daude jada; Madrilgo M15ean parte hartu duten zenbaiten ustez, plataformako sektore erreformista osatzen zuten, eskuindarra.

Zergatik ez sortu alderdi bat?

“Oso galduta ikusten dut mugimendu hau gauza askotan”, dio José izeneko madrildar batek. 50 urte inguru ditu eta Sol plazako kiosko baten ondoan dago; maiatzaren 12ko manifestazioak iristen ari dira, adin bertsuko zenbait lagunek mahai batean liburuak daukate salgai, beraiek prestatutako edizio merkeak: Marx, Engels, Italiako mugimendu komunistaren historia... “Ez da ezer zehazten, ezer ez, inolako alderdi politikorik ez... Boto zuria eskatzen zuten paskinak hartu berri ditut. Baina zer uste dugu? Kongresuan eserlekuak hutsik lagata zerbaite lortuko dugula?”. Bere ustez, ordezkaritza bat eraman behar dute, “herrialdeko lotsagabeak eta lapurrak botatzeko”.

Joséren kritika behin baino gehiagotan egin dute ezkerreko zenbait sektorek, baita





Bandera eta zapi zuriak astindu zituzten Sol Plazan bildutakoek, minutu bateko isilunea egin aurretik.

Euskal Herrian ere. M15a martxan jarri zenetik asko eztabaidatu da ordezkari-talogikaren kontra eta alde, eta ez DRYren barruan bakarrik. Gai klasikoak dira: asanblada ala aginte-katean oinarritutako antolakuntza; iraultza egunerokoan egitea ala boterea hartzeari lehentasuna ematea; gizarte-mugimendu autonomoak ala alderdi politiko baten inguruan sortuak. Argi dago zeren aldeko hautua egin duen M15ak: sistemari osotasunean egiten dio aurre, baina ez bere mekanismo berak erabiliz. Mugimenduaren indarra jendea da, pertsonen artean sareak eraikitzeko gaitasuna eta proposamen alternatiboak hemen eta orain eskaintzea.

Desjabetzeen aurka indartsu

Konexio berezia izan dute M15ak eta Hipotekak Kaltetutakoen Plataformak (PAH gaztelaniazko sigletan). Bartzelonan sortu zen elkarte hori orain dela bi urte eta Estatu

Espanian 300 etxe husten dituzte egunero. Stop Desahucios elkarteko kideek 220 geratzea lortu dute urtebetean

osoan zabaldu da, *suminduen* indarrak bultzatuta. Plazetatik kanpo, adar hau da M15aren indargune nagusietakoa.

Madrilgo Opera plazan etxebizitzaren gaia lantzen duen asanbladak 40 bat lagun bildu ditu. Rafael Mayoral PAH elkarteko abokatuak hartu du hitza. Hamar minutuko azalpena adi jarraitu dute denek. Ideiak garbi eta diskurtso zuzena: ez da onargarria Espainiako Estatuan sei milioi etxe huts egon arren desjabetzeak jai eta aste errepikatzea, jendea etxerik gabe uztea, eta etxeak maizterrik gabe, hutsik. Desjabetzeekin gertatzen ari dena giza eskubide baten bortxaketa sistematikoa da”, azaldu du, eta banketxeak eta epaileak jo ditu errudun.

Asanblada amaituta, taldekideak elkar agurtzen ari direla, gizon bat hurbildu zaio laguntza eske. Santander bankuarekin duen hipoteka ezin dezakeela ordaindu eta etxetik botako dutela. Mayoralek telefonoa eman –“ez idatzi e-postarik, ehunka jasotzen

ditu”– eta lagunduko diotela esan dio. Abokatu gaztearen ustez, ezinbestekoa da taldean antolatzea desjabetzei aurre egiteko. Zordunek bat eginda, bankuekin hipotekak negoziatzeko; bakarka inola ere ez. “Etxea galduko duen pertsonak erruduntasun sententzia edukitzen du hasieran”, esplikatu du, “eta hortik kontzientzia hartzerantz pasatzen da”. Desjabetzeen kontrako mugimenduari esker problema iritzi publikoan iritsi dela azpimarratu du: “Ideien borroka irabazten ari gara, duela urtebete erokeria zen hori lortuko genuela pentsatze hutsa”.

PAHren eta M15eko auzo-asanbladen arteko elkarlanak bi taldeen indarrak esponentzialki biderkatu ditu. Horri esker, urtebetean 220 desjabetze geldiaraztea lortu dute Espainiako Estatuan. ADICAE elkarteak zabalduko datuen arabera, ordea, egunero 300 familia botatzen dituzte beren bizitokitatik, astean 2.000. Gehienak, horrez gain, bizi osorako geratzen dira bankuarekin zortetan.

Desjabetzeak geratzen saiatzeaz gain, PAHk proposamen zehatzak ditu. Plataforma garbi dauka herritar guztiek etxebizitza duina eduki dezaten agintariak egin beharko luketena: alokairu sozialeko parke publikoa sortzea. Horrekin espekulazioa ia desagertzeko litzatekeela baieztatu du Mayoralek. Eta gehitu du, erakundeek badituztela hori egin ahal izateko tresnak: “Bankuen esku dauden etxe hutsak desjabetzera derrigortuta daude erakundeak, errepide bat egin behar denean, zerbitzu publikoaren mesedetan dela argudiatuta, ez baitaukate arazorik lurra desjabetzeko”. Espainiako Parlamentuan ekimen legegilea aurkezteko sinadurak biltzen hasi dira, “herritarren gehiengoak babesten duena mahai gainean jartzeko”.

Moneta alternatiboa sortzeko proiektua abian da eta denbora bankuak sustatu dituzte Madrilgo auzoetan. Horrelako lankidetzasareek egunero erakusten dute bestelako ekonomia-ereduak posible direla

Langabeziaren kontra, auto-enplegua

Langabeziak ekarri ditu plazara M15eko kide asko. Espainiako Estatuan bost milioi lagun baino gehiago daude zer suma, eta gazteen artean %50ak ez du jornalirik irabazten –beste askok sufritzen dituzten lan baldintzak ez aipatzearren–. Asun Villar ere langabezian dago. 48 urte ditu eta M15eko langabetuen asanbladako kideekin Sinergias kooperatiba sortu zuten iaz. “Zerbitzu ugari eskaintzen ditu”, azaldu du, badira abokatuak, igeltseroak, elikagaien esparruan lan egiten duen jendea... Estatuak egoerarekin zer egiten duen ikusten geratu baino, nahiago izan zuten auto-enpleguaren bideari heldzea –protesta alboratu gabe, noski–. “Ni nekatuta nengoen ordura arte egiten genuenarekin. ‘Ez al duzue ikusten ez digutela kasu putarik egiten?’,

esaten nuen. Askori kezaketa besterik ez zaio bururatzen, baina haserreak ez du jendea sofatik altxatzen, esperantzak bai”.

Horregatik sustatu dituzte denbora bankuak Madrilgo auzoetan. Moneta alternatiboa sortzeko proiektua ere abian da. “Lana badago, nik behar dut norbaitek etxeko hodiak konpontzea, ilea moztea... Dirua da mugitzen ez dena. Ba, jaun-andreak, zuen dirua ez badabil, gurea egin beharko dugu”. Kooperatiba asanblearioa da eta langabetuak dira kide asko, baina ekonomialariek eta abokatuak ere laguntzen diete, euren lan orduak bukatu ondoren, borondatez. Horrelako lankidetzasareek egunero erakusten dute bestelako ekonomia-ereduak posible direla eta badituztela abantailak ezagutzen dugun kapitalismo errealean aurrean. Nola zabaldu ordea? “Zorritzarrez, ez gara mugitzen eskua patrikan sartzen diguten arte”, dio Villarrek. Bere ustez, horrelako ideiak aurrera ateratzeko, hasierako lana da gogorrena. “Baina jen-

ESKOLA TXIKIEN FESTAK 25 URTE



Ekainak 3, Larraulen

Puzgarriak - Pirritx eta Porrotx - Zezenak eta Pottokak -
Kupela taldea -tailerrak - Eskola Txikien dokumentala -
erakusketa ... *zatozte ospatzera !!!*



Rafael Mayoral (ezkerrean), desjabetzeen aurkako mugimenduko abokatueta bat; eta dekrezimenduan oinarritutako bestelako gizarte ereduaren alde egiten duen Sinergias kooperatibako Asun Villar.



deak ikusten duenean bere bizilagunari hone-lan eginda ondo doakiola, gainera estresik gabe bizi dela, beti nagusia gainean eduki gabe, bere lanaz erabakiak har ditzakeela... Esperientzia hori bizitzean hasiko da hau gehiago zabaltzen”. Edonork eman dezake izena Sinergias kooperatiban; aldi baterako lan enpresek eskaintzen dituzten soldata baxu eta baldintza eskasen ifrentzua da, nolabait. Gizartetik kanpo dagoen aukera? “Gizarte paralelo batean”, Villarren esanetan.

Sol plazan eta inguruetan begiratzen hasi eta gizarte paralelo hori benetako bihurtzen duten esperientziak erraz aurkitzen dira. M15ari buruzko desinformazioa dagoela? Asanbladen gizarte paraleloak egunkari bat sortu du. Goseak geroz eta madrildar gehiagori eragiten diola? Sare bat antolatu dute, jateko moduan egon arren zaborretara botako zituzten elikagaiak berreskuratu eta zentro sozialen bitartez jendearen artean banatzeko; karitatean erori gabe, janaria denboraren truke eskainiz. Maiatzaren 13tik gai zehatzen inguruko asanbladak egiten ari dira Madrilgo erdigunean, bestela bizitzeko moduak bilatzen jarraitzeko.

“Daukagun indar bakarra”

“Nazka-nazka eginda nagoelako sistema honekin, hemen ez dago ez demokraziarik ez ezer”, dio Rafael Fuentecerrato erretiratuak, ea manifestaziora zergatik etorri den galdetuta. “Gure iritziak ez du inporta, eta hemen egotea da daukagun indar bakarra”, dio tesia egiten ari den eta izena eman nahi ez duen gazte madrildarrak. “Inguruan dagoen guztia

gainbehera doa, nola ez naiz etorriko hona?”, Paula Vidal gazteak. “Denok batu behar dugulako, politikariak egiten ari direna piratearia hutsa baita”, Viviana Argindegui unibertsitateko irakasle argentinarrak.

Modu ugaritan esan daiteke, baina iritzia antzekoa da: krisi ekonomikoak Espainiako Estatuko ekonomia dardarka jarri zuenean beste krisi bat ere sortu zen, ordezkarietza politikoarena. Alderdiek ordezkatzeko ez dituztelako, beren burua ordezkatzera datoz herritarrak plazara. Trantsizioaz geroztik lehenengo aldiz espainiar askok zalantzan jarri du sistema politikoaren funtzionamendua, “bukatu da bake soziala” oihukatzen dute Solen bildutakoek. Toni Negri filosofo italiarrak Rebelion.org webgunean azaldu duenez, azken hauteskundeetan M15ak arrakala bat topatu zuen. PSOEk finantza-munduen aurrean burua makurtu ostean boto erreformista ezinezko aukera bihurtu zuen; baina era berean, mugimenduak lortu du eskuinaren garaipena aldeztu aurretik hustea, Negriren esanetan.

M15a sendoago ikusten dute hasieratik parte hartu dutenek. Iazko protestetatik, aldarrikatzen duten mundu hobe hori eraikitzen hasteko proposamenak mahai gainean jartzen ari dira. Akatsetatik ikasten du giza-kiak, eta M15ak egin ditu, baita egingo ere, baina milaka pertsonen desadostasuna eta haserrearen kanalizatzen daki oraindik. Hori lortzen duen bitartean, izan plaza handietan edo auzoetan, deserosoa izaten jarraituko du boterearentzat. ■



Eric Gueret

«Nork ordainduko ditu industria kimikoaren sarraskiak?»

Elkarriketa irakurri aurre eta osterako aholkua: irten leihora eta hartu arnasa.

SUSTRAI COLINA

Argazkiak: Dani Blanco

Pestizidak erein dituzten laborariak minbiziak jasaten ari dira. Alta, inork ez du deus esaten, denak berdin jarraitzen du.

Laboraria diskretua da izatez, minarekiko erresistentea, nekez kexatu eta bere zilborrari buruz oso gutxi mintzo dena. Isiltasun horri zinezko pudorea eta besteen begiradaren beldurra nahasten zaizkio. “Gaixo bagaude gure afera da”. Herri txiki eta landaguneetan denek erreparatzen diote elkarri, denek dakite denen berri, eta ez da samurra gaixotasuna onartzea. Berez gaixotasuna asumitzea zaila bada pentsa zer den sistema osoa zalantzan jarri eta gaixotasuna eta pestizidak lotuta daudela salatzea. Sistema hankaz gora jartzeko izuz bizi dira, kimikaren zepoan harrapatuta, oso nekeza baita laborantza intentsibotik ateratzea. Jende horri, 50eko hamarkadan, gizateria elikatze-ko misioa eman zitzaion, gosetearen aurka-ko salbatzaileak ziren, eta gaur bazter utzi ezin duten sistema batean preso daude, kutsatzaile etiketa bizkarrean, azken ileraino zorpetuta, eta aro kimikoaren aurretik gauzak nola egiten ziren ahaztuta. Hala, psikologikoki erosoagoa da itota dauzkan sistema defendatzea berau hilgarria izan arren, orain arteko norbere lana eta existentzia dudan jartzea baino. Dena kolokan ezartzea zepotik irteteko ezintasuna onartzea litzateke. Hori gutxi ez eta kimikaren firma erraldoi bati aurre egin beharrak edonor kikiltzen du, eta gehie-gehienek nahiago dute gaixotasuna isilpean eraman edo ahopeka hil, ur handi arre horietan murgiltzea baino. Amorragarria da baina sistema guztia kimikaren industriaren esku dago.


Filmeko laborari batek dio ez duela berak landatutako tipularik jaten.

Etengabeko min baten isla da, uneoroko kalbario batena. Gizateria asetzeko misioan dena eman, eta 50 urte geroago kutsatzailerat zaizkatenean, kontsumitzaileak eta lurra hiltzea egozten dizutenean, eta zure burua suntsitu eta zure bilobak arriskuan jartzen dituzula deskubritzean, nola biziko zara lasai? Mutu dauden askok ez dute arazoa begiz begi ikusi nahi, nahiago dute problemarik ez dagoela pentsatu. Zepoak samina eta sumina dakartza. Errua irensteak ez dizu beti aitzina egiten laguntzen. “Hiltzeko egiten dugu lan” esango dizu batek, bere tipularik ez duela jan nahi besteak. Zer balio du bere partaide behinenak hil eta asetzen ez dituen sistemak? Eta sistema hori gezur hutsean oinarrituta badago? Laborantza kimikoak gizateria elikatze-ko balio izan duela esatea nuklearra berotze klimatikoaren aurkako soluzioa dela esatearen parekoa da, zakurraren

Nortasun agiria

1965eko irailaren 24an sortu zen Suresnes-en (Frantzia). Parisko Louis Lumière eskola ospe-tsuan egin zituen zine ikasketak, eta geroztik etenik gabe dihardu gai sozial, ekonomiko, politiko eta ekologikoen inguruko dokumentalak eta filmak egiten. Horren adibide dira, sabela korapilatzen dizuten hondakin nuklearrei buruzko *Déchets: le cauchemar du nucléaire* eta pestiziden erabilerak laborarien osasunean sortzen dituen kalteei buruzko *La Mort est dans le Pré*.





putza. Errotutako jukutria egia absolutuaren heinekoa izan liteke ordea, eta jendea sinetsita dago laborantza biologikora pasatzea mundua gosez hiltzen uztearen sinonimo litzatekeela. Ba ez, Nazio Batuen Erakundearen txosten batek laborantza biologikoak gizateria ase dezakeela dio, eta Pierre Rhabi laborari eta filosofoaren arabera, laborantza intentsiboak du mundua gosetera eramanez. Beraz, elikadura hondamendi honi iskin egiteko modu bakarra produkzioa birlokalizatzea eta gertuko laborantza garatzea da.

Hauteskunde kanpaina bukatu berri da Frantzia. Zergatik ez da gai horiez hitz egin?

Politikarientzat laborariak ez dira boto emailere interesgarriak, baina desesperazioaren desesperazioz FN alderdira lerratzen direnean, hori bai, hitz egin eta zerua hitzeman behar zaie. Alabaina, laborantza ez dago agintarien agendan, ezer gutxi daukate proposatzeko. Oso gai teknikoa da, europarra, eta galduta daudenez, ez dute sakoneko gai bihurtzen. Ulertzen ez dutena da noiznahi lehertuko zaien bonba baten gainean eserita daudela. Hori hala, benetako boterea lobbyen esku dago. Lege proposamenak lobbyek iradoki eta idazten dituzte, politikarien aholkulariak lobbyetako seme-alabak dira, eta inork inor trabatzen ez duen bitartean jo eta ke boterearen kimikatik kimikaren boterera pasa arte. Lehenik, laborarien artean gehiengo duen FNSEA sindikatua kontrolatzera pasa ziren, gero politikarien itzalean eta finantza erakundearen administrazio batzordeetan kokatu ziren, eta hori hala deno jai dago. Politikariak firma kimikoen boterea berreskuratzeko erronkari aurre egin behar liokete. Nola liteke produktu kimikoak saltzeko interesa dutenak kontrolatzea sistema?

Nola ehundu da amaraun gupidagabe hori?

Azken 50 urteetan, arlo anitzetan, botere asko utzi dugu kimikaren esku. Errazena zen, praktikoa, etorkizuneko eredu modernoa. Pentsa, zergatik esaten dugu laborantza konbentzionala eta laborantza biologikoa daudela? Laborantza konbentzionala laborantza kimikoa da, eta orain mende erdi bat laborantza biologikoa baizik ez zen existitzen. Benetako laborantza konbentzionala eta tradizionala biologikoa da, ez gendake laborantza kimikoa eta laborantza biologikoa beste kontzepturik erabili behar. Gezur hori irentsarazita, kezka guztien erantzunak laborarien esku jarri ditu industriak, mendeetako transmisioa ezabatu eta kimikariek gabeko laborantza ezinezkoa dela sinestazteraino. Zergatik ezin dira laborantza kimikotik ateratu? Ez dakitelako bestela lan egiten. Firmen botere hartzea laborarien memoria *resetatzetik* dator. Bigarrenik, estatuek kontrol

zientifiko eta teknikoaren boterea guztiz abandonatu dute, eta ikerketa eta esperimentu horiek aurrera eramateko aukera duten bakkarrak firmek subentzionatutako laborategi pribatuak dira. Pestizidak homologatzeko frogak enpresa horien esku uzten badituzu zer emaitza espero zenezake? Noiztik finantzatzen du epaiketa akusatuak? Botere publikoek produktuak ontzat jo eta homologatzen dituzten momentutik eskuak garbitzen dituzte, gainera. Arazo bat baldin badago, euren komertzializatze baimena erakutsi, eta nahita nahiez, denak itzultzen dira botere publikoen aurka.

Noiz arte?

Mugaren mugan gaude, eta ez dut uste amiantoarekin, Mediator-arekin edo pestizidekin gertatzen dena luzaz jasango dugunik. Aski da esatear gaude, mahaian ukabilkada jotzeko zorian. Atzetik arazo ekonomiko izugarria dator, ordea. Nork ordainduko ditu sendatze prozesuak, indemnizazioak, eta neurritz kanpoko triskantza hauek? Nork ordainduko ditu industria kimikoaren sarraskiak? Zergatik uste duzu gaur egun laborarien osasun erakunde nagusiak oso nekez jotzen dituela gaixotasun profesionaltzat pestiziden erabilerari lotutako minbizi eta abarrak? Bidea zabalduko balute, askoz kasu gehiago agertuko liriateke, baina nork ordainduko luke? Ez dago izurrite masibo honen aurrean iraun dezakeen osasun erakunderik. Ezinezkoa da. Soluzio bakarra dago: industria ordainaraztea.

Aurtengo otsailean, Monsanto kondenatuz, Lyongo epaitegiak eman duen sententzia mugari izan daiteke?

Gauza bat da gaixotasun profesionalaren izendatzeari ateak zabaltzea, eta bestea industriari errua egotea. Kasu honetan, Monsanto ez zuen onartzen bere produktua laborari baten eritasunaren jatorrian zegoenik. Alta, laboraria produktu hori arnastu eta bi ordura koman

zegoen ospitalean. Eskerrak laborari horrek txibatazioa jaso eta Belgikako erakunde publiko batean zeuden dokumentu konprometitu batzuetarako sarbidea izan zuen. Agiri horietan argi eta garbi agertzen zen Monsanto bazekielan bere produktua toxikoa zela, eta Belgikatik erretiratu arren, Frantzia komertzializatzen segitu zutela. Pentsa, hemen aspalditik debekututako produktuak saltzen dira Afrikan. Industriak saltzeko zirrikituak dauzkano, ez da gertatzen. Kostu humanoa ez zaio piperrik ardura.


"Frantsesen buruan, nuklearra kolokan jartzea Frantziaren ohorea eta handitasuna zalantzan jartzea da"

Esaldi bera entzuten da hondakin nuklearrei buruzko zure filmean.

Nuklearrarena ere nahiko eredu klasikoa baita. Botere finantzarioa eta botere industrialia aliatzen dira dispositibo osoaren kontrola lortu arte.

Behin hori erdietsirik, legeak desbideratzen dituzte, politikariak erosten, jendea gezurrez konbentzitzen, eta ohartzerako hondamendirantz garamatzate. Halako batean, osasunarentzat ondorio lazgarriak datozela jabetzen gara, baina industria pauso bat aurrerago dago. Zer gertatzen da laborariek? Pestizidak ekoizten dituzten firma berberak direla minbiziaren aurkako botikak saltzen dituztenak, baina inork ahotsik ozentzen ez duenez... Nuklearrera itzulita, zergatik hitz egiten da nuklearrari buruz hondakin nuklearrak aipatu gabe? Ez dagoelako irtenbiderik. Nuklearrak bi *impasse* handi ditu, arriskua eta hondakinak. Denok dakigu Txernobil eta Fukushima zerrendako lehen biak baizik ez direla izango, baina orain 50 urte nuklearra soluzio energetiko interesgarria zela deliberratu eta hondakinekin zer egin pentsatu gabe bidean abiatu ginez, denak isilik. Gaur da eguna dakiguna hondakin nuklearen batez besteko biziraupena 200.000 urtekoa, 6.000 belaunaldikoa dela. Zer pentsatu liteke bere zakarren kudeaketa hurrengo 6.000 belaunaldi delegatzen dien industrian? Gainera, ez dira edozein zakar. Aski da lurpetik aktibitate altuko fluxua ateratzea

ATXASPI HOTELA



...ametsetan bezala

Bittiria, 24 · Lesaka (Nafarroa) · T.: 948 637 536 · hotela@atxaspi.com · www.atxaspi.com





BESTEREN AHOTAN

Pello Zubiria Kaminok

La Mort est dans le Pré dokumentalaz: "Europako nekazari industrialen lau historia gogor. Haria darama 50 urte inguruko laborarisa alargunak, senarra galdu zuen leuzemiagatik, oraindik malkoa ateratzen zaio. Berekin ari da Paul, nekazari ausarta, Monsanto auzitara eraman duena. Hirugarrena Fred mahastizaina, leuzemia dauka, ondo izorratua, orain mahastian botikak langileak botatzen ditu (ondo maskaratuta, hori bai), segi behar baita lanean bizitzeko. Laugarrena Denis paraplegiko geratua tumore batek bizkarrezurreko muina ukituta, Daniel auzoak laguntzen dio traktorearekin. Dokumentala da lau bizitza horien kontakizun minimalista, hitz bat bestea baino altuagoa ez. Drama aurrera doala, Denis hasiko da bere etxaldea biologikora bidean jartzen, laborari lagunei diotse 'ezingo dut soportatu zuetako bat orain nigatik gaixotzea'. Paulek irabaziko dio auzia Monsanto, Belgikako berdeen espero gabeko laguntzari esker, kutsaduretan espezializatutako abokatuek defendatuta. Baina Fred pittinka itzaliz joango da... Latza. Ona".

denak karbonizatzeko. Nola nahi duzu horri buruz hitz egitea? Argia piztea bezalako keinu sinple batek 6.000 belaunaldi berantago zure oinordekoak hil ditzakeelako ideia integratzen baduzu ez zara argia piztera ausartu ere egiten! Oraingo buruzagiei berdin zaie ordea, ez dira hor egongo, baina nork onartu eta har dezake hori bere gain?

Zergatik iruditzen zaigu Txernobilgoa edo Fukushima bezalako hondamendiak auzoan baizik ezin direla gertatu?

Arriskuaren ideia onartezina bezain jasangaitza zaigulako. Istripu nuklear baten ondorioak barneraezinak dira pertsonontzat. Frantzia, zentral bakoitzaren inguruan 50 kilometroko segurtasun perimetroa libratu behar balitz zenbateko lur-eremua geratuko litzateke? Gainera, nuklearraren eta frantsesen arteko harremana oso berezia da. Egizu frogia, lau-bost lagun mahai-jiran biltzen direnero larrutu nuklearra, eta kasuen %90ean sekulako kalapitak sortzen dituzu. De Gaullen garaitik datoz urak. Frantziak galdu berri zuen indar koloniala indar nuklearrarekin ordezkatu zuen. Frantsesen buruan, Frantzia munduko potentzia handia bada, NBEko segurtasun batzordean beto eskubidea lortu bazuen, nuklearrari esker da. Gauzak horrela, nuklearra kolokan jartzea Frantziaren ohorea eta handitasuna zalantzan jartzea da, Frantziaren barrabiletan ostikada jotzea, eta bitartean gezur bolak eraikiz eta handituz doaz. Baina ez gaitezen engaina, Frantzia indar teknologiko handi bihurtuko bada ez da nuklearrari esker izango, nuklearraren desmuntatzeari esker baizik. Arlo horretan sekulako etorkizuna dago, enplegu andana sortu liteke,

nuklearra mantentzeko baino askoz gehiago. Zergatik? Oraindik ere ez dakigulako zentral nuklear bat behar bezala desegiten.

Sistemaren gezurrak desegiten dakiten dokumentalak ere urriak dira oso.

Botereari aurre egitea erabakitzen duzunean zintzotasuna, zorrotasuna eta ardura zor dituzu. Lana da nire babesik handiena. Nik ez dut ausardiarik behar, ez noa Siriara gerra erreportajeak egitera, nik denbora behar dut. Nire protagonistei proposatzen diedan tratua oso xumea da. Ez noa eurei buruzko filma egitera, eurekin pelikula egitera baizik. Horregatik nire lan gehienak borrokatzen duen jendeari buruzkoak dira, eta ahaleginak eta bi egiten ditut euren ikusmolde eta funtzionamenduak ulertu, eta euren egoera eta psikologia azaleratzeko. Horrek ez du esan nahi onkeria zor diedanik, baina badakite nire begirada ez dela zauritzaile eta iraingarria izango. Begirada askatasun horrek bereizten ditu pelikula militantea eta film zintzo eta benetakoa. Horretarako denbora behar izaten da, denbora asko. *La Mort est dans le Pré* bezalako egitasmo bati ekiten diodan badakit noiz hasten naizen baina ez noiz amaituko dudana. Nire ustez filmak izan behar lukeena erdietsi arte ez dut amore ematen. Hori indar handia da, baina baita luxua ere. Egungo kazetari eta dokumentalgileek ez dute bitartekorik euren lana ondo egiteko. Nik berdin kobratzen dut lan batekin bi hilabete edo bi urte pasa, baina niretzat ezinbesteko luxua da denbora. Lan lasterra lan alferra izaten da usu, eta erreportajea agian bai, baina dokumentala ezin da azkar egin. ■





Nafarroako konkista

Historialarien lorratzari segika

Prosper Boissonnade
José Yanguas y Miranda
Arturo Campion
Victor Pradera
Miguel de Orreaga
José María Lacarra
Florencio Idoate
María Puy Huici
Alfredo Floristán
Manex Goihenetxe
Pedro Esarte
Alvaro Adot
Mercedes Galán
Peio Monteano



- Nafarroa, Erdi Aroan ala Modernitatean?
- Nafarrek konkista ondorengo estatusa onartu al zuten?
- Aita Santuaren buldak egiazkoak eta justifikagarriak al ziren?
- Beaumontarrek bat egin al zuten Fernando Katolikoarekin?
- Zein izan zen Joanes Albretekoaren eta Katalina Foixkoaren jarrera?

Bestondorik utz ez dezan

Ekainaren 3an Larraulen ospatuko den Festa puntu-puntu dago. Antolatzerakoan bertako kontsumoa hartu dugu oinarri Larraulgo Guraso Elkartekook eta Udalak. Eta ingurunearekiko begirunez jokatzeko Kutxa-Ekoguneako Ekoliderrekin aritu gara elkarlanean.

ESTITXU EIZAGIRRE

Irudia: Garbine Ubeda Goikoetxea

Zuhaitza ikustetik basoa ikustera

Eskola Txikien Festa antolatzerakoan, Larraulgo gurasoek Eskola Txikien Koordinakundetik oharra jaso genuen: festen ikur diren plastikozko baso berrerabilgarrietan aurrerantzean Koordinakundearen logoa jarriko dela, ez urteko festarena, hartara aurren erabiltzen ez direnak hurrengo urteko festan aprobetxatuko dira. “Eta gainerakoa nola antolatu(ko) dugu, ahalik zentzuzkoen izan dadin?” sortu zen galdera.

Jada martxoan geunden, berandutxo piztu zitzaigun ingurunearekiko arreta eta partxeak jartzen hasteko beldur, Kutxa-Ekoguneara jo genuen planteamendu orokorrako baten bila. Berehala jarri gintuzten harremanetan “Ekolider”-ekin.

Ekoliderak, ideiak eta asesoramendua elkarlanean

Ekoliderak Kutxaren programa bat da, gazteak jasagarritasun proiektuak aurrera eramaten trebatzeko. Lau Ekolider taldeetako bakoitzak bere proiektua lantzen du eta berau garatzeko formazioa eta tutoretza jasotzen dute Kutxa-Ekogunean. Gurekin harremanetan jarri ziren Dafne Mazo, Zuhaitz Akizu, Mikel Uranga eta Nerea Zenigaonaindia, eta makrojaialdietarako pentsatuta zeukaten proiektua Eskola Txikien Festa-ra egokitze konpromisoa hartu zuten. Larraulen bildu ginen Dafne Mazorekin festari buruzko azalpenak jaso eta lekua ezagutzeko. Bileran hartan hasi eta email-katean landu ditugu festari egingo zaizkion hobeak. Ekoliderrek ikuspegi osoagoa, ideia zaparradak eta kontaktu zehatzak eskaini dizkigute, eta Larraulgo Guraso Elkarteak era-

Banatzaille handiekin regateoan ibilita ere ez dugu lortuko herriko enpresek trukean ematen duten babesa eta zerbitzua

Herri bazkariako plater eta kubiertoak benetakoak izango dira, ez plastikozkoak. Hondakin denak gaika bilduko dira eta organikoa herriko baratzeko konpost-kutxan onduko da

baki du hobekuntza bakoitzaren alde on eta argalak ebaluatuz zer aplikatu. Jarraian duzue gisa honetako festa antolatzean sortzen diren galdera eta erantzun posible batzuk.

Bertakoa kontsumitzea, festaren oinarria

Antolatzen hasi ginenean jarri genuen lehen oinarria izan zen. Herritarrek dituzten enpresei erosi diegu ahal izan dugun guztia: kamisetak, haragia, kartelak eta triptikoak, diseinua, eskulanetarako materiala, opilak... Herri bazkaria antolatzerakoan Euskolabelengana jo dugu oinarri honekin bat datorrelako, eta esnez hornitzeko Kaikurengana. Festak sortzen duen aberastasuna herrian gelditzeaz gain, garbi geneukan:

banatzaille handiekin regateoan ibilita ere ez dugu lortuko herritarrek trukean ematen duten babesa eta zerbitzua (festarako diru ekarpenak, igande horretan lan egiteko konpromisoa eta egun horretan bertan genero gehiago eskatzeko aukera, adibidez).

Ostalaritzako hobekuntzak

Kutxa-Ekogunearen laguntzari esker, herri bazkarian jarriko diren mantel, plater, baso eta kubiertoak “egiazkoak” izango dira, ez plastikozkoak. Gureak ostalaritza zerbitzuak alokatu egiten ditu eta bera arduratzen da ontzi zikinak eraman eta garbitzeaz. Horrez gain, aluminio

papera erabili ordez bokadiloak paperezko zorrotan biltzea erabaki da. Txosnetan zerbitzatuko diren kafe basoak paperezkoak izango dira, eta koilaratxoak zurezkoak izatea pentsatzen ari gara. Beira gutxitzeko, zerbeza kañerokoa aterako da, baina freskagarrien kasuan hau ez da bideragarria, behin irekita-ko barrika osorik ordaindu behar baita eta

Eskola Txikien Festa, ekainak 3



asko sobratzen da normalean. Horregatik, freskagarriak plastikozko botila handitatik zerbitzatzea erabaki da. Plastikoa gutxitzeko, ur botila mordoa saldu beharrean herriko iturriak seinalezatu eta iturriko uraren kontsumoa bultzatzea pentsatu da. Ez gara ausartu botilako urik ez saltzen, bakoitzak bere ohitura eta beldurrak baititu edateko urarekin. Sagardo botilak sagardotegitara itzuliko dira eta barran bilduko dira txakolin eta ardo botilak ere (festan kontsumo tiketak itzuliko dira botila hutsen truke).

Festari buruzko informazio osoa:
larraul.eskolatxikiak.org webgunean.

jakia zehatz kalkulatzetik izango dugu gehiegi sobratu ez dadin. Hondakin denak gaika bilduko dira, eta organikoa herriko baratzeko konpost-kutxan onduko da. Tolosaldeko Mankomunitatearekin bildu gara egun osoko zaborraren antolaketa adosteko, eta zera esan digute, organikoa biltzeko edukiontzirik ez dutela eta bilduko bagenu ere ez dutela bereizita lantzen. Gure esku hartu dugu organikoa bildu eta herriko konpostean ongari bihurtzeko ardura.

Organikoa herriko konpost-kutxan onduko da

Herri bazkarian ez dugu hondakin askorik espero (platerak eta gainerakoak benetakoak izaki), plastiko zerbait eta organikoa batez ere. Erreserbak aurrez ixten direnez,

Garraiorako proposamenak

Eskola Txikien Festarako herri asko dira autobusa ateratzen dutenak. Hauen ahalegina eskertu asmoz, lehentasunezko tratua eman nahi izan diegu: euren autobusa herri-raino igoko da festara doazenean, eta gertueneko parkingean izango dute busa uzte-

CAMPOS

1921-ETIK, CAMPOS-EK
HEGALUZE-KONTSERBA EGITEN DU
DENBORAREKIN HARTUTAKO OHITUREI
ESKER, HEGALUZERI ONENA BILATZEN
DU ZUK, GAUR, KALITATEZKO PRODUKTU
GOZO BATEKIN GOZATZEKO.

Gure webgunean erosi: www.clubcampos.com

ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu
garai batean
egiten ziren ogiak,
lehengo osagai
eta teknikekin

Galparsoro
OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia
bihurtu baitugu
denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074

Dafne Mazo, ekoliderra

“Askotan festa txikiagotan pauso handiagoak egiten dira”

Zerbitzu jasangarriak eskaintzen dituzten enpresen berri jakitea erraz egin al zaizu?

Batez ere Interneten aurkitu ditut, eta IHOBek bere webgunean dituen praktika onen orritik. Baliabideak badaude, baina zerbitzu hau eskaintzen duten enpresa ornitzaileen zerrenda lortzea ez da hain erraza. Euskal Herrikoak bildu behar lirateke.



Zergatik animatuko zenituzke antolatzaileak hasieratik jasangarritasuna kontuan hartzera?

Ekintza hauekin lortzen dena da aurretik pentsatzea

benetan zein diren behar ditugun baliabideak. Sarri ez da islatzen antolaketan egin den esfortzua, baina nire ustez jendeak apreziatzen du antolaketan lan hau egin izana.

Euskal Herrian festa asko egiten da. Nola baloratzen duzu jasangarritasun ikuspegitik?

Makrojaialdietan egiten diren ekintzak sarri gehiago izaten dira jaialdiak promozionatu eta sariak jasotzeko. Askotan festa txikiagotan pauso handiagoak egiten dira, ikusten ez direnak. Jendea hasi da dauden aukerez jabetzen.

ko lekua. Larraulerako errepidea moztu egingo da eta autobusak jarriko dira Asteasuko industrialdeko parkingetatik eta Villabona-Zizurkilgo tren eta autobus geltoki ondotik. Autobus elektrikoak erabiltzea aztertu da, baina ez dugu alokatzen duen enpresarik aurkitu. Kotxea partekatzeke webean jarri dugu iragarkia (blablacar.es). Eta Asteasuko bidegurutzetik datorren mendi-bidea txukunduko dugu; eguraldi ona bada jendeak nahiago izan dezake oinez igo edo jaitea (2 kilometro dira) busera igotzea baino.

Komunak bertakoak eta izatekotan sikuak

Plastikozko kabinak ekarri beharrean, konturatu gara herrian komun publiko asko badela eta hauek ongi seinalatzatzea lehenetsi dugu (frontoi ondoan 2, Hezkide Eskolan 8, eskolan 2 txiki eta handi 1). Komun ekologiko sikuen (ikus 2215. aleko Net Hurbil) informazioa jaso dugu eta esperientzia piloto gisa bat jartzea ari gara aztertzen.

Tailerrak eta dekorazioa material birziklatuz

Eskola hartzen duen Kultur Gunearen fatxada apaintzeko ikasleek lientzo bana egin dute eskolan, eta denen artean osatuko dute mosaiko koloretsua. Lientzo hauek etxetik eramandako tapoi, kortxo, goxoki zorro eta ohialekin egin dituzte. Egunean bertan 8-12 urteko gaztetxoentzat tailerrak egingo dira (bata Ekoliderrek antolatuko dute, hezkuntzaren proiektua lantzen ari diren Ekometak taldearen laguntzaz eta bestea Larraulgo gurasoek); material berrerabilgarritz brotzeak, giltzakoak, diru-zorroak... egingo dituzte. Tailerren atarian energia sortzen duten txi-

Hurrengotarako txostena denen eskura

Festa ahalik eta zentzuzkoen antolatzeaz gain, baliatu nahi dugu hurrengo urteetarako festa antolatu behar dutenek heldulekua izan dezaten. Aurtengo esperientziatik abiatuta, arlo desberdinetan (garraioa, kontsumoa...) landu diren proposamen eta kontaktu zehatzak bilduko dituen txostena osatzen dihardute Ekoliderrek. Aurten egin ez diren beste hainbat ekintza ere bilduko ditu, hurrengo urteetan baliagarri izan daitezkeenak. Ondoren, antolatzaileen eskura jarriko da bai Eskola Txikien Koordinakundean, bai Larraulgo Gurasoen webgunean (larraul.eskolatxikiak.org), baita IHOBEn ere praktika onen atalean. Ederra litzateke Euskal Herrian hainbeste esperientzia duten antolatzaile (EHZuzenean, Ikastolen festak, Sagardo egunak...) denen artean gida hori osatuko balitz!

rrindak jartzea aztertzen ari gara, argindar horrekin musika piztu eta giroa sortzeko.

Komunikazioa, ahalik gutxien inprimatuta

Eskuorrien tirada neurtu dugu eta kartelena murriztu, euren eraginkortasuna zalantzan ikusi baitugu (bezero fidela da festa honek biltzen duena, eta bere berri eskolatik eta komunikabideetatik jasotzen du). Gutun eta gonbidapen denak emailaz egin dira, inprimatu beharrik ez izateko. Ekoliderrek festa jasangarriagoa izateko erabiltzaile gida osatu dute eta Festaren webgunean jarri dugu.

Kamisetak, beste baterako kontuan har

Gaiari heldu diogunerako aterea genuen kamiseta eta jertse aukera koloretsua. Hauen konposaketak baduela bere garrantzia ohartarazi digute Ekoliderrek (kotoizkoa izatea, tinta organikoak erabiltzea...).



ZIRTAK

Jose Inazio Basterretxea

IDAZLEA

Urruti gabe

Garai ezinago zaharretan, unibertsoa sortzen ari zen sasoi urrun hartan, lagun minak ziren mendiak: batera bizi eta batera ibiltzen ziren. Aro ahaztu haietan, itsaso bakarra osatzen zuten aintzirek. Adiskideak ziren animaliak.

Izarrak jaio, planetetan argia egin, eta mundura ur edangarria nahiz habitagarria heldu zen une zoragarri hartan, elkarbizitza koloretsuak gidatzen zuen izadiaren norabidea. Eta pinguinoen orkestra sinfoniko batek alaitzen zituen egunero animalien eta gizakien afariak.

Halere, ezelako abisurik gabe eta bat-batean, erabat transformatu zen mundu hura: goitik behera. Itsasoa galdu zuten ibaiek. Zikindu egin ziren elurrak. Itzali, suak... Arrazoia? Bi hankako animalia zuri bat ekarri zuen oinaztarriak lurren eta itsasoen gainera: Errege jauna. Ona egin zen behazun. Txarra, zorne.

BI BEGIKO ESKOPETA. Marfila ebatsi, eta zigorra oparitzen hasi zen Gorentasuna. Urrea lapurtu, eta lan behartua ezartzen. Denbora librean, ankerkeriazko legeak asmatzen ematen ez zuen denbora horretan, matrail-hezurrera hurbildu begi biko eskopeta, eta tiro egiten zion Errege hark parean jartzen zioten orori: botila hutsa, baratzetako txorimaloa nahiz orgetako gurpila.

Ontzi eta trasteekin aspertu zenean, tiro egin zien anaiari, semeari, Afrikako zebrari nahiz Urdeetako zerriari. Ehizatu zituen gepardo jaspeztatuak, arrano beltzak, krokodilo negartiak, eta kobra txistulariak.

Gorteetako lagunak gonbidatu zituen ehizara, eta abiarazi zuen turismo derizotzen izurrite urbanoa. Hurbildu zitzaizkion apaizak, militarrek, bulegariak, bankariak, suhiltzaileak, kazetariak...

Bi begiko eskopetari esker, ehiztari aben-



INIGO AZKONA

turazaleak tiro batekin asmatzen ez bazuen, bigarrenarekin zartatzen zuen sarraskia. Eta, menturaz ez batarekin ez bestearekin asmatzen ez bazuen ere, esker oneko izan zitekeen, zeren —lurra zenez ezinago aberatsa— tiro alderraiak eragindako luberrietan petrolio putzua irekitzen baitzen —edo mea: diamantezkoa, ikatzezkoa, kobrezkoa, uraniozkoa, nikelezkoa...—.

ELEFANTEAREN ESKEA. Tembo elefantearen kexua eragin zuten mandatari haien desmasiek. Simba lehoiaren haserrea piztu zuten zaku hautsirik gabeko diamante-biltzaile haiek. Nyati bufaloaren amorrua ekarri zuten turistek, erreka uretan ahaztuta uzten baitzituzten kalekume gaixoez argazki-kamera bateriak.

Ezinegona esnatu, eta sabana osoa matxinatu zen: nor bere aldetik, batasunik gabe. Saiak borrokatu ziren airean. Sugeak eta dordotak, uretan. Antilopeak eta ganbeluak, lurrean... Finean, lasto-sua, hura dena.

Ad aeternum-eko bidea hartu, eta izugarri luzatu zen eztabaida animalien artean: zer egin? Atzeratu egin zen denentzako balio beharko zuen estrategia komunaren diseinua... zer egin? Geroratu, behazunezko olatuaren kontrako taktika zehatzaren onarpena... zer egin?

Baina, azkenean bai: bat etorri, eta esan zuten animaliek ezen, dena goibeldu eta erori zela bat-batean gizaki-klase berri hura —errege eta akolitoena— sortu zenez geroztik. Sabanaz sabana zabaldu zuten, ezen horien eskutik etorri zirela zornea eta eritasunak oro. Halere, zer egin?

Indarrak batu eta gizaki-klase berri horren aurkako fronte komuna

eraikitzeko, mikrofonoa hartuta, grabe-grabe, han bota zuen Tembo elefanteak bere aldarria: fuera errege, urruti gabe! ■



irudia:

Antton Olariaga



PLUJA SECA

euri lehorra

maiatzaren 18an estreinaldia euskaraz!

ARGIAko **multimedia** kanalean



Euri Lehorra

dokumentalak bitartekari
batzuek Hegoafrika eta
Irlanda Iparraldeko bake
prozesutan egindako lana
aurkezten digu.

Lan interesgarria da, pertsona hauek berak Euskal Herriko egoeraz duten iritzia azaltzen baitigute.

TV3 telebista kataluniarrak eta Baleukok egindako dokumentala da, orain arte euskaraz izan ez duguna, eta **ARGIA**k euskaratua.

Dokumentalean parte hartu dute:

John**Hume** | William**deKlerk** | Alec**Reid** | Roelf**Meyer** | Brian**Currin**
Harold**Good** | Jonathan**Powell** | Alex**Maskey** | Peter**Robinson** | Pierre**Hazan**
Denis**Haughey** | Charles**Villavicencio** | Brandon**Hamber** | Mohammed**Baba**
Aubrey**Lekwane** | Paula**Leyden** | JuanJose**Ibarretxe** | Rufi**Etxeberria**
Leopoldo**Barreda** | JoséAntonio**Pastor** | Jone**Goirizelaia** | Pául**Rios**

Baleuko
komunikazioa



EUSKARAZ
 Bizi
 euskara



Gipuzkoako Foru Aldundia



GORA PRO NOBIS

Asisko Urmeneta



ORAIN ARTEKO TEKNOLOGIA
BALIATU IZAN DUGU
PLASTIKOA ATERATZEKO
PETROLIOTIK !!!

!!! ORAINGO ERRONKA!
PLASTIKOA DESTILATU,
PETROLIO BILAKATZEKO!



Kattalin Miner

TABERNA ZULOKO BLOGARIA

Gure M-15

Maiatzaren 15a iragan berri da. Gurean horrek, esango nuke ez duela beste munduko esanahirik, ez dugula behintzat hain gure bizitzan. Baina egia da gurean haserre bizitzen ikasi dugula, ez ginela orain urte bete haserretu, ez esnatu, ez altxa. Gurea diodanean, ez pentsa Euskal Herriaz soilik ari naizenik, gurea diot, mugimendu sozial deitzen dugun hori aipatzearen, gurea diot, herria mobilizatzeko gaitasuna adierazten duen hori aipatzearen, gurea diot sistema kapitalista heteropatriarkal horri hortzak erakusten dizkiogunok aipatzearen.

Hemen badakigu egun bizi dugun ustezko bakerako paraje demokratiko honek, gutxi duela baketsu eta demokratikotik. Indar polizialak ez duela bakerik ulertzen, ez sekula ulertuko, indar eta neurri politiko eskuindar eta bortitzek ezer gutxi dutela baketsutik, matxismoak osasun egoera paregabea bizi duela, eta mila kontu gehiago.

Horren guztiaren aurrean esan behar diogu gure buruari, egunero bizi dugula M-15 batzuok. Gure bizitzak haserreak eta etsipenak jan ez ditzan, asko gara kaleak etengabe hartzan ditugunak, eraso matxista, lesbofobo, autoritario eta erreprezioen aurrean makurtzen ez garenak, milaka kilometro astebururo egiten ditugunak,



DANI BLANCO

borroka molde eta eszenatoki berrietara moldatzen saiatzen garenak, pedagogia lanen hondar alearen balioa ikusten saiatzen garenak... eta *indignatu* edo suminduak ez bagara ere, horixe bera garela: egin egiten dugunak eta saiatu saiatzen garenak.

Zeren *indignazio* hitzak beti izan du niretzat *resignazio* kutsu bat, eta duintasuna terminoak ere askotan alarmak piztuarazi izan dizkit. Baina, ukazina dena da, hori dena ere existitzen dela. Espainiako Estatuan mugimenduen berpizte bat sortzerainoko modukoa den muturreko egoera bizi dugula, eta horregatik bakarrik bada ere, poztuko naizela, aurtan M-12an tokatuko den egunagatik.

Nik neuk goizero errepikatu behar izaten diot nire buruari eskubidea dudala bizitza hau bizigarriagoa egiteko, eskubidea dudala uste dudana horren alde edo aurka borrokatzeko, ez etsitzeko, agian eta gutxi bada ere, Europako panoraman Frantzia gorritz margotuko duen emaitza horrek barrenak poztu diezazkidan uzteko, teleberria ez ikusteko, nireak alboan ditudala aurrera jarraitzeko, egun batean paperak galtzeko, maitasunez

batean eta hurrengoan gorrotoz borrokatzeko... Azken batean bai, azken batean, hori baita gure M-15. Besterik ez. ■



«
Indignazio hitzak beti izan
du niretzat *resignazio*
kutsu bat, eta duintasuna
terminoak ere askotan
alarmak piztuarazi
izan dizkit
»

TXANDAN

Juanra Makuño



Denon ongia helburu izatea ez da utopia bat. Utopia dela esateak, beharbada, aitzakia-
ren kutsua du. Eta orain argitu beharko genuke zergatik hezurretarraino sartu zaigun “denona izan daiteke” delakoa, utopiatzat hartzen dugun. Ez da oraingoa arazoa. Platonek bere *Errepublikan* Estatua ongi gobernatua izateko, aldarrikatzen zuen agintariek ez zutela bere ongizatearen alde egin behar, baizik eta hiritarren ongia bilatu behar zutela. Alderantzizkoan, istiluak baino ez ziren emango halako hirietan. Eta hori da gaur islatzen dena hirietan, estatuetan. Edo

Denon ongia

zertara dator bestela kapitalaren diktadura? Enpresek ez dute bilatzen denon ongia, gizakia tresna baita. Enpresek bitartekoak izan behar lituzkete, eta ez helburu bat beren baitan. Pentsatzen dut, kapitalismoaren balioak krisian daudela jada, hori ez da berria. Krisi kontzeptuak, esanahiari dagokionez, aldaketa esan nahi du. Denon ahotan, aldaketa dabil, krisi hitza esaten dugunean hori adierazten ari baikara. Baina noski, hori erroetara joatea da. Agintariek hori ez dute nahi. Beraien arteko liskarrek ez dakarte denon ongia. Eroso daude. ■



Ainhoa Larrañaga

MONDRAGON UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

Elkarbizitza norekin eta norentzat?

Lehen eskuko informaziorik ez daukagunontzat eta ikusle soil garenontzat, kosta egiten da Eusko Legebiltzarrean sortu den batzorde berriaren izaera eta helburuak ulertzea. Bakea eta elkarbizitza termino potoloak hartu dituzte euren zereginaren oinarri. Baina gatazka iturri eta zirkotiko antzu bilakatu da askorentzat.

Notizia ez da batzordearen sorrera, Aralarreko hiru legebiltzarkideek, batzordearen aldeko bozka emateaz gain, ekimenaren lidergoa hartzea eta Legebiltzarreko hainbat alderditako buruzagiren zorion eta txaloak jasotzea baizik. Legeak eskaintzen duen aukera baliatu dezakete eta karguari eusteko eskubide eta askatasun osoa daukate, eta horrek, galdera baten aurrean kokatzen gaitu: ordezkari politikoak herriari ala alderdiari zor zaizkio? Euren jokabidearen argudio izan dira kontzientzia eta koherentzia politikoak. Nik neuk nekez ulertu nezake hiru kotearen jarrera: Lehenengo, batzordeak fruitu emankorrik nekez emango duelako; bigarrenik, Aralarreko afiliatuek demokratikoki aukeratutako zuzendartzaren aginduari entzungor egin diotelako; eta azkenik, herri honetako benetako arazoak ezkutatzeko laino geruza sortzea besterik lortuko ez duelako.



JUDITH FERNANDEZ



Bizi dugun egoera
politikoan, bakea eta
elkarbizitzarako eragileetako
bati, bigarren mailako
parte-hartzea eskaintzen
bazaio, logikoa da
gonbidapena
ez onartzea



Badirudi, lege kanporatutako ezker abertzaleak idatziz soilik izango duela batzordean parte hartzeko aukera. Bizi dugun egoera politikoan, bakea eta elkarbizitzarako eragileetako bati, bigarren mailako parte-hartzea eskaintzen bazaio, logikoa da gonbidapena ez onartzea. PPren betoa izango duen batzordean ezker abertzaleak parte-hartu nahi ez izatea logikoa da edozein ikuspegitik. Zertarako eta norentzat balioko du orduan, batzorde honek?

Krisi ekonomikoaren aitzakiapean oinarritzko zerbitzuetan murrizketa sakonak bizi ditugun honetan, guztion diruarekin ordaintzen ditugun parlamentariak asteazkeneko mahai baten bueltan bilduko dira, ipar garbirik barik eta alde zurretik dakigun moduan emaitzarik ez lortzeko.

Ekimen hauek eraginkorrak ez badira, badago zeri heldua sasoi hauetan.

Egoera politikoak aurrerabide argirik gabe jarraitzen duenean, batzorde honek, anestesia funtzioa beteko du, futbolak, Borboiaren elefanteak eta Urdangarinen iruzurrak bezala.

Joseba Sarrionandiaren baita menarekin: *Galduak gara behelaino artean?* ■



HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



maitasuna, hilgarria izan liteke. Ez da kasualitatezkoa “nirea zelako akabatu nuen” mexikar kantaren arrakasta, azken bi tragoekin edonor kantari ematen zuena. “Ez nazazu hainbeste maite, utz nazazu ni izaten” izan liteke patologia horren sendatzeko kanta baten errepika egokia. Burutazio hau erakarri dit ateak Gipuzkoako etxe barruetara zabor ideologikoa zabaltzen duen *El Diario Vasco* erdaldunak. Kirol orrialdeetan zekarren Unai Emery hondarribiarrarekin egin elkarriketan, Realera ekarri nahi eta ezin adierazten zuen, Montaner kanporatzea xede. Gogoan dut Ormaetxea kanporatzeko

Gehiegizko

ahaleginetan jardun zuen garaia, *Luis de Andia* aterkipean ezkututzen zen Acosta izeneko batek zuzendu kanpainak lortu zuena, John britaniarra ekarri arte lasaitu ez zena, ondoren bere burua honen menpe ezarri zuena morroi bilakaturik. Hastapenetik berripaper tanke honek Montaner izan du diana, bere jomuga Real berea delakoan eta ez beste inorena, politika eta gizarte sailtan Bildukoak dituen bezalaxe Gipuzkoa maitasun. “Ez gaitzazu hainbeste maite, utz gaitzazu bakean guk izaten euskara maitasun”. Eta kanta aurkeztu nola, eguneroko errauskailu ideologikoa martxan eman zuen. ■



BERTSO BERRIAK

Izar Mendiguren

Autoterapia



XDZ

I

Ispiluaren aurrean
zenbat kilo, zenbat grasa!
Nahiz ta gimnasiotik pasa
nabil argaldu ezinean.
Konplexuak barrenean
gure azal ta hezurra,
gizartearen gezurra.
Ispiluan nago adi
naizena ikusteari
kenduko diot beldurra!

III

Begira horko mutilak
ze itxura, ze gomina...
neskak gona motz urdina
sutan jartzeko zakilak...
ez al gara inutillak?
Ligatzeko mozorrotzen,
klaserako normal janzten,
kritikatuz hona, hara
gu guztioak ez al gara
egunero makillatzen?

V

Estekikak garrantzia
du ezerk baino gehiago,
neska bat baldin badago
besapea ilez utzia,
denentzat da itsusia...
Kritikatu aurretik bela
uler dezagun horrela,
ez bibote ez ingreak.
Kendu beharreko ileak
mingainekoak direla!

II

Nire bularrei begira
lotsa dut sujetadore,
askatuko banu hobe
zerk estutzen nau, zerk tira...
Nireak handi balira
ez nintzateke arrotza,
moda ez balitz zorrotza
ahaz ditzagun titiak,
ez du inporta neurriak
handia bada bihotza.

IV

Gizontasuna esklabo,
sentimenduak nahi isil,
negar egin baino lehen hil,
zerbait gu itotzen dago!
Gaur inoiz baino gehiago
emakume zein gizona,
malkoa beti da ona.
Negar gabeko irria
beti da negargarria
hori ez da zoriona!

VI

Konplexuak hain konplexu
errez da ez konplikatu:
lotsak hautsi ta askatu!
Egin irri, eman musu...
ederra zarelako zu
begira ispiluari,
eta oihukatu garbi:
“Nahiz zaila dela, badakit
ez dut beldur ez lotsarik
naizena izateari!”



DOINUA: Bakardadeak.



Bidali zure sortak bertsoak@argia.com helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

erdiko kaiera

Haur eta gazte literatura Bazterrekoak, kanonizatuak eta azterketa tematiko berriak

Bat baino gehiago dira azkenaldian generoa aztertzeraz hurbildu direnak, linea ofizialetik kanpoko begirada eskaini nahian, azterketa sistematikoagoa egiten edo gai zehatz batean sakontzen. Haur eta gazte literatura zeresana ematen ari da gurean.

MIEL A. ELUSTONDO



HAUR ETA GAZTE literaturari buruzko lana argitaratu du berrikitan Iñaki Zubeldia idazleak. *Haur literatura aztergai 2* titulua ageri du liburuaren azalak, eta, honenbestez, orain dela sei urte egindako azterketaren jarraipen dugu. “Ez da haur literaturari buruzko tratatu bat, ezta gai horri buruzko azterketa sakon eta orokor bat ere. Gehiago dira haur eta gazte literaturaren eremura egindako inkur-

tsioak”, egileak azaldu duenez. “Haur literatura, idazlearen ofizioa, liburutegien garrantzia, literatura bultzatzeko bide berriak... aztertzen dira eta zenbait gogoeta, elkarrizketa eta iritzi kritiko eskaintzen”. Iñaki Zubeldiak berak esan digunez, “ni ez naiz haur literaturan aditu edo jakintsu bat, saiatzaren den bat baizik eta gauzak gaizki ikusi ditudanean azaldu egin izan ditut, beti nire arrazoiak eta



BASQUERESEARCH.COM



ALEX LARRETXI



JOSU TXABARRI



DANI BLANCO



ZALDI ERO

nire ikuspegiaren zergatia garbi uzten ahaleginduz eta adibide argiak eskainiz. Linea ofizialetik kanpoko begirada bat eskaintzen diot haur literaturari eta autore konsakratuetatik kanpoko autoreak –‘beste autoreak’ deitzen diet nik–, aztertzen ditut, nolabait linea ofizialak baztertuta eta kasu batzuetan ‘ignoratuta’ dauzkan idazleak”.

Helburu horiek gogoan, hainbat gai landu ditu Zubeldiak lan honetan. Joxantonio Ormazabalen oroimenez idatzitako testuak irekiko du liburua, eta, ondoren, hamaika azterlan eta gogoeta: euskarazko haur eta gazte literaturaren bilakaera, haur literaturaren defentsa, haur liburutegien garrantzia, zenbait egileren lanaren azterketa eta haiekin egindako elkarrizketak... Gaur egungo haur eta gazte literaturari egindako begirada pertsonala da egilearena.

Azterketa sistematikoa, Etxaniz eta Lopez Gasenik

Bestelakoa da Xabier Etxaniz Erlek eta Jose Manuel Lopez Gasenik egin ohi duten azterketa. Bi lan ditugu eskueran, elkarren osagarri. *Eguno euskal haur eta gazte literaturaren historia* dugu lehena, eta *XXI. mende hasierako haur eta gazte literatura*, berriz, bigarrena. Bi lanotan ikuspegi zientifiko-akademikoa nagusituko da begirada pertsonalaren gainetik. Zubeldiak generoan barna egindako sarturtenak ditu gogoko, zertzeladak biltzea, han eta hemen ohar egitea. Etxanizek eta Lopez Gasenik sistematizazioa bidetzat hartu eta jotzen dute aurrera. Zubeldiaren kasuan bezala, Etxanizen eta Lopez Gaseniren lanak ere aurreko bat dute abiapuntu, hots, *90eko hamarkadako Haur eta Gazte Literatura*. Hala orduko lanean, nola iazkoan, euskarazko haur eta gazte literaturaren sistema bera dute aztergai bi egileok.

Bidea egina dute beren azterketan Etxanizek eta Lopez Gasenik, euskarazko haur eta gazte literaturaren hastapenetatik gaur egungora bitartekoa landu baitute. 1990era artekoa lehenengo, 90eko hamarkadako ondoren,

Ezkerretik eskuinera
Garbiñe Salaberria,
Xabier Etxaniz Erle,
Txabi Arnal Gil, Iñaki
Zubeldia eta Manu
Lopez Gaseni.
Ikuspuntu ugaritak
azkenaldian haur eta
gazte literatura
aztertu dute egileok.

mende berriko lehenengo hamarkadako hurren. Eskuartean dugun azken lanean, *XXI. mende hasierako haur eta gazte literatura* izeneko honetan, alegia, “sarrera historiko baten ondoren generoka azken hamarkadan izaniko garapena eskaintzen da, kanonari buruzko azterketa bat eta egungo sistemaren egoera eta erronkekin amaitzeko”. Horretan, irakurleak, idazleak, instituzioa, bitartekariak, merkatua eta erreperitorioa dira sistemaren osagaiak.

Lanaren helburuei dagokienez, honela diote Etxanizek eta Lopez Gasenik: “Alde batetik, egungo egoeraren berri eman –zer argitaratzen den, nork, gaiak, generoen egoera...–, eta egoera horretatik abiatuta zeintzuk diren gure literaturaren erronkak aurrera egiteko, gero eta literatura osatuagoa eta erakargarriagoa eskaini ahal izateko; eta bestetik, ikerketa honek bide eman nahi die beste batzuei, hemendik abiatuta beste lan batzuk sortuko direlakoan”. Horietan da Iñaki Zubeldiarena, horietan beste azterlan bi, guztiz bestelakoak izanagatik ere: Garbiñe Salaberriaren eta Txabi Arnal Gilen azterketa tematikoak. Batak, balio etiko eta moralek haur literaturan duten presentzia aztertu du. Bestea, heriotzak haurrentzako albumetan duen trataerari begira jarri da.

Kanona, garai jakin bateko joera

Eman dezagun Iñaki Zubeldiaren esana, “linea ofizialetik kanpo” dauden autore eta obrak aztertzeri jo ohi duela, “ignoratuta” geratu diren horiek. Eman dezagun, aldiz, kanonari begira ari direla Etxaniz eta Lopez Gaseni, mende hasierako literatura aztertu dutenean. Eta zer dute kanona? “Garai jakin batean sistemaren erdigunean dauden obrei eta obra horien ezaugarriak buruz ari gara. Ez gara berriazko balioa luketen lanez ari, baizik eta garai jakin horretako instituzioak –akademiak, kultura erakundeak, unibertsitateak, argitaletxeak, eta abar–, hobetsi eta, horrenbestez, erdiguneko posizioa hartu duten lan eta egileak”.

Kanonak ez du, berez, literatura ona eta txarra esan nahi. Horretan, bi egileek bere

egin dituzte Even Zohar-en hitzak: “Zenbait garaitan, zenbait ezaugarriak estatus jakin baten inguruan biltzeko joerak ez du esan nahi ezaugarri horiek ‘ezinbestean’ dagozkionik estatus jakin bati”. Garaian garaiko joera halako bat nagusi dela besterik.

Kanona gorabehera, idazle guztiek dute sarrera mende hasiera honetako haur eta gazte literaturaren baratzat deituan.

Etika, heriotza literaturan

Haur eta gazte literaturari buruzko azterketa horiek ez ezik, badira literaturaren alderdi espezifiko bati begira egindako ikerketa lanak, eta doktore tesiak. Horiatarik ditugu Txabi Arnal Gilek, batetik, eta Garbiñe Salaberriak, bestetik, egindako lanak. Salaberriak etika izan du abiapuntu, eta balio etiko eta moralak hartuko ditu aztergai. Horretarako, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan ari diren ikasleek irakurri ohi dituzten literatura liburueta jo, 80ko lagina baliatu eta egin zuen tesia, *Contextos sociales y valores en la literatura infantil y juvenil* izenburupean. Soziologiatik jo zuen azterketan, 564 liburu kontuan hartu eta haietarik 80 aukeraturik, ikasleen artean harrera handienekoak; Harry Potter bildumakoak, kasu. Jakina da guztiz bestelakoak direla Lehen Hezkuntzako ikasleek, alde batetik, eta Bigarrenekoek, bestetik, irakurtzen dituztenak. Gai konkretuagoak –baina ez eskusiboki konkretuak–, ageri dira lehenek irakurtzen dituzten liburuetan, eta abstraktuagoak bigarrenetan. Salaberriak inoiz esan izan duenez, ordea, batzuetan eta besteetan irudimen narratiboa agerikoa bada ere, irudimen etikoa ez da maila berean garatu, mundu honetako hainbat gai, bizipen eta esperientzia nekez baitira irakurtzen ahal ikasleen irakurgaietan.

Gisa berean, gai berezi bat lantzerako jo zuen Arnal Gilek doktore tesian, eta haur eta gazte literaturako albumetan heriotzaren agerpena

**Kanonak ez du, berez,
literatura ona eta txarra
esan nahi, garai jakin batean
ezaugarri batzuek ematen
duten estatusa baizik**

aztertu, gaztelaniazko 57 albumeko lagina aztergai.

Honela idatzia du Arnal Gilek tesiaren atarikoan:

“Ondo gogoan dut aitona Emilio hil zen eguna. Hamar urte nituen. Aitona gazterik alargundua zen. Gure ama haurra zelarik hil zen amona. Zahartzean, herria utzi zuen aitona. Gurekin bizitzera etorri zen. Sasoi batean, gela ere banatu genuen. Langileen etxeak behin ere ez dira oso handi izan.

Aitona etxean hil zen. Bat-batean izan zen, aurrez abisatu gabe. Bazkalondoko kuluxka egiteko sartu zen ohera, eta ez zen esnatu. Eskolatik itzuli nintzenean, ustegabekoa jaso

nuen. Etxea jendez betea, eta ama eta izebak negarrez etengabe, negar marmarrean, baina negarrez. Zer zen galdetu nuen, zergatik hainbeste jende, eta denak betilun. Amak kontatu zidan. Negarrari eman nion. Ez nuen bestelako azalpenik behar izan. Ondo baino hobeto nekien zer gertatua zitzaien aitonari, betiko gertatu ere.

‘Ikusi nahi duzu’, amaren galdera niri. ‘Ohean datza’. Baietz esan nion, ikusi nahi nuela. Izeba haietako batek ezetz esan zion amari, logelara sartzen ez uzteko. Amak ez zion kasurik egin. Aitona nuela erantzun zion, eta nik, nahiz eta haurra izan, aitona agurtzeko eskubidea nuela.

Gaur egun oraindik, eskerrak ematen dizkiot amari, aitona ikusteko eta agurtzeko aukera eman zidalako. Haren hilotzak ez ninduen larritu. Aitona nuen eta, hilik ala bizirik, maite nuen. Hura izan zen nire ‘lehen hildakoa’, heriotzarekin izan nuen lehenengo esperientzia, eta, dudarik gabe, gisako esperientziak gertatu zaizkidanean ikaragarri lagundu nau”.

Lagundu, heriotzak literaturan ageri dituen hamaika aurpegiak sakon aztertu eta tesia egiteraino: *El tratamiento de la muerte en el álbum ilustrado infantil*. ■



Euskal Herriko Unibertsitateko Euskara Zerbitzuak 2003an abiarazitako ekimena da ZIO (Zientzia Irakurle Orentzat). Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzari esker urterik urte osatuz doa ZIO bilduma. Zientziara hurbiltzeko liburu erakargarri eta erabilgarriak eskainiz, euskara eta jakintza uztarturik jartzen dira edonoren esku.

BIZKAIA
BIZIA

Espazioa eta Gorputza monografikoa

Esanahi berrien bila, biluzik

Bilboko Alondegia datorren maiatzaren 17, 18 eta 19an arte biziei buruzko hirugarren monografikoa antolatu du, gorputzaren eta espazioaren arteko elkarriketan oinarrituta. Dantza izan liteke bi kontzeptu horiek hoberen biltzen dituen arte bizia, baina Alondegiko programak erakusten du badirela beste euskarri batzuk ere, elementu horien elkarriketa adierazteko.

MYRIAM GARZIA

“GORPUTZA garrantzitsua da espazioarekin harremanetan jartzen delako. Une hori harra-patu behar dugu, non subjektua objektu bilakatzen den; espazioaren eta gorputzaren arteko harremana ikuslearen imaginarioan barneratzen da orduan, eta dena bilakatzen da zentzumen-mundua, diskurtsoa edota kontzeptua, argumentua edota aitzakia... Ziklo honetan nahi dugu espazioaren eta gorputzaren arteko elkarriketak beste erabilera aukera batzuk erakutsi ditzan”. Horrela laburbildu du Mateo Feijóok, *Espazioa eta Gorputza* monografikoaren komisarioak, erakusketaren muina. “Historian gorputzak mezu anitz igorri ditu, eremu metafisikotik hasita, eremu politikora edota sozialera. Eztabaiden objektu ere izan da; bati ederra iruditzen zaiona, beste batentzat zatarra izango da; batek sexu ustia-keta ikusten duen tokian, beste batek desira ikusiko du. Gorputza munduaren errepresentazio bilakatzeko da”.

Fernando Pérezen eta Mateo Feijóoren elkarlanetik sortu da arte biziei eskainitako hirugarren monografiko hau, aurretik dantzaren eta ikus-entzunezkoen inguruan egindako *Gorputza eta Irudia* eta soinu ardatz hartu zuen *Gainontzeko Musika* zikloa osatzera dator. “Helburua eremu artistikoen alde tematikoa jorratzea da, arte diziplinak nola uztartzen diren haien artean; eta arlo sozial eta kulturalarekin duten harremana aztertzea” azaldu du Pérezek. “Normalean, ardatz nagusia arte biziak edota zuzeneko arteak izaten dira: dantza, antzerkia, musika, performance... Baina gaur egun ikus-entzunezkoek izugarritzko

eragina dute gainerako arte diziplinetan eta hori kontuan hartu behar da”.

Dantza, performancea, artea, desioa, espazioa, estereotipoa, morala, generoa, sexua, gorputz pribatua eta publikoa eta identitatea dira Alondegia antolatutako ekintza artistikoetan erabiliko dituzten kontzeptuak. Ekin-tzak ez dira gertatuko ohiko espazioetan, antzokietan edo leku itxietan alegia. “Gure helburua beste espazioetara zabaltzea da, bestelako arte diziplinen guneetara eramatea arte bizi hauek”, dio Pérezek. Horren adibide dugu programaren baitan dauden dantza emanaldiak. Alondegiko Erakusketa Aretoran egingo baitira. “Normalean arte hila ikusten dugun aretoan, arte biziak erakustea nahi izan dugu, gorputz biluzientzat espazio zuria sortuz, eta ohiko kamara ilunetik, ohiko eszenatokitik, alden du”.

**“Normalean arte hila
ikusten dugun aretoetan
arte biziak erakutsi nahi
ditugu”**

**FERNANDO PEREZ,
ALONDEGIKO PROGRAMATZAILEA**

Hiria gorputzarekin harremanetan

Bi dantza emanaldiak maiatzaren 17an eta 19an izango dira, Martin Padron –La Gomerako (Kanariak)

Zentro Koreografiko kidea– eta Greziatik etorriko den Apostolia Papadamakiren eskutik. Papadamakiren kasuan, Euskal Herrian izango den lehen aldia da. Martin Padron aitzindaria izan da nazioartean dantza didaktikoaren esparruan. “Martin Padronen kasuan, eserleku mugatuak izango dira, 100 lagunek soilik ikusi ahal izango dute, lerro bakarrean eta sortzailearen inguruko ikuspegi biribila sortuz”.

Gorputzaren eta ezohiko espazioaren arteko harremana erakusteko, hirian erabat integratuko diren espazio artifizialak sortzea ere

erabaki dute; adibidez, Alondegiko atrioan Marco Canevacci alemaniarrek eta bere konpainiak sortutako hemezortzi metroko diametroa duen *Medusa* instalazioa jarriko dute. “Espazio bat beste espazio baten barruan sortuko dugu, eta gorputza barrutik eta kanpotik nola ikusten eta aldatzen den probatu nahi dugu”. *Medusan* bertako proposamenek leku berezia izango dute, hiru egun horietan. Muelle 3 Bilboko dantza eskolak, aizkolari batek eta Alberto Sinpatron moda diseinatzaileak euren lana erakutsiko dute bertan.

Kalea espazio eszeniko gisa erabiltzearen beste adibide bat, Portugalgo Teatro Utero konpainiak ekarriko duen *Na rua* instalazioa. “Ez bakarrik dantzatik eta mugimendutik: antzerkitik eta hitzetatik sortzen diren espazioak eta harremanak dira instalazio honen helburua” azaldu du Alondegiko programatzaileak. Ikusle bakar batentzako ikuskizuna da eta Atrioan jarriko diren bi zulodun egiturek sortutako espazio berezian ikusi ahaliko da, aktoreak burua zulo batean sartuz eta ikusleak bestean. Teatro Utero taldeak antzezle eta dantzarienezako tailerra ere antolatuko du; aipagarria Blanca Ortigak eta Jara Cosculluelak emakumeentzat eskainiko duten *Publikotasunaren eta Intimitatearen artean* tailerra.

Alemanio Bridge Markland sortzaileak berriz performance bat ekarriko du. Pérezek dioenez, “guretzat garrantzitsua da, gorputzen eraldaketa nola ematen den arte eszenikoetan, generoa, sexua eta estereotipoak nola



Bridge Markland alemaniarrek performance bat ekarriko du Bilboko monografikora. Markland andere erakargarria izatetik gizonezko izatera pasako da, umorea eta hausnarketa uztartzen dituen ikuskizunean.

ulertzen diren alde artistikotik”. *The most beautiful woman in the word* (Munduko emakumerik ederrena) performancean Markland andere erakargarri izatetik, gizonezko izatera pasako da, hitzaren, musikaren eta kanten bidez. Bere gorputza eta jantziak aldatuko ditu baina baita diskurtsoa ere. “Era horretan, publikoari helarazten dizkio sentsazio sakonak, ikuskizun sinpleen bidez. Inportantea da beldurrik ez izatea aldaketa horien aurrean. Ikuskizun honetan barre egin dezakegu baina hausnarketarako ere balio du”.

Helduei zuzendutako monografikoa da eta sarrera galarazita dago adin txikikoentzat “zenbait irudirengatik, baita diskurtsoengatik ere”.

Espazioaren eta gorputzaren gaian murgilduko da monografikoaren barruko zine zikloa ere. “Bertan ikusi ahal izango ditugu adibidez, Pina Bausch dantzari eta koreografo alemaniarrek 1981ean zuzendutako filma. Aukera paregabea da horrelako proposamenak ikusteko, ez baitaude ez Interneten, ezta areto komertzialetan ere”. *30 urte dantza-antzerki alemaniarrean* argazki erakusketa ere aipatzekoa da, Goethe Institutuak utzitako 60 argazki biltzen baititu. “Gomendio bat egin beharko banu, hiru egun horietan monografikoan murgiltzea da, ondorio batzuk ateratzeko. Askok uste dute garaikidetasuna elite baten-tzako dela baina gure helburua da denak elite horren partaide izatea” bukatu du Pérezek. ■



Santurtzi

Liburu azoka maiatzaren 18tik 27ra, Portuko pasealekuan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Liburuak

KRITIKA

Amari agurra

Helduen literatura | ELEBERRIA

Gema Lasarte

EUSKAL LITERATURAN ezaguna dugu Annie Ernaux (1940) idazle frantziarra. Dagoeneko hiru lan ditu euskaratuak *Pasio Hutsa* (Igela, 2002), *Gertakizuna* (Igela, 2003) eta *Lekuak* (Igela, 2003). Eta oraingoan, berriz, *Une femme* (1988) itzuli digu Itziar de Blas Fernandezek eta Txalapartak argitaratu.

Teknika aldetik, lehen pertsonan borobildua dago eta modus autobiografikoak ematen dituen lizentziak erabiltzen ditu bere aitaren heriotzaren kontaketa-ekin egin zuen berbera amaren heriotzaren narrazioarekin egiteko. Zirkularra, tarte zuriez osatua eta iragana orainera hurbiltzeko teknika zinematografikoez baliatua. Ardatz tematikotzat ama du eta haren heriotza. Ama-alaben arteko hartu-emanen inportantea da bietariko baten heriotza, baina ez da literaturan zehar berau gehiegi aztertu. Amarentzat alabaren

galera edota alabarentzat amaren galera humanitatearen funtsezko tragediak dira, baina literaturan ez dira hala jasoak izan. Ezagutzen dugu Lear (aita-alaba arteko galera),



Emakume bat.
Annie Ernaux.
Txalaparta, 2011.
Itzultzailea: Itziar de Blas
Fdez. de Gamarra.

Hamlet (seme-alaba), Edipo (seme-ama). Humanitatearen tragediarik nagusienak bezala ezagutzen ditugu gainera. Baina orain arte ez dugu ezagutzen, esaten zuen Adrienne Richen (1978) ama-alaba arteko haustura eta pasioa inskribatzen laguntzen duen figura literarioa.

Eta hori litzateke, liburu honen ekarpenik esanguratsuena, beti ere, Ernauxek oso ohikoa duen fikzioa eta autobiografiaren arteko ezkontza nahastuan sorturiko eremuan aztertuta. Baina, humanitatearen tragediarik handienari izen propioak jartzeaz gain, oso guztion eta gaurkotik duen gaia dakarkigu *Emakume bat* liburuak: alzheimer gaixotasuna. “Badakit ezin naizela bizi garai bateko emakume indartsu eta argitsu hura eta oraingo emakume zoratu hau idazkuntzaren bitartez lotu gabe”. Interesgarria da Ernauxek nola deskribatzen digun eta kontatzen bere ama izandako gorputz indartsua eta azkenik, gaitzak gaixoturik, gizaki itxura galduz doan gorputz hondatua. Eta harekiko pixkanaka-pixkanaka adioa eta degradazio egoera honek sortzen duen sufrimendu latza. Sufrimendua amarentzako eta sufrimendua alabarentzako ikusirik zein modu bortitzean ari zaion ama galtzen, desagertzen.

Eta azkenik, amaren heriotza, amari agurra. “Ez dut amaren ahotsa berriz adituko. Berak lotzen ditu, bere hitzekin, bere eskuekin, bere keinuekin, bere barre egiteko eta ibiltzeko moduarekin, orain naizen emakume hau eta izan nintzen neskatala. Irten naizen munduarekiko azken lotura galdu dut”. Ederra da kontaketa, ederra ama-alaben artean bizitutakoa, izan ere, Ernauxen amak, beste ama gehienek bezala, goiz eta gau patatak eta esnea saltzen zituen, Annie anfiteatro batean Platoni buruz hitz egiten entzuteko, gaur egun Letra Modernoetan duen Katedra lor zezan edo den idazle ospetsua izan zedin.



Ekain berri

Euskal Kulturaren sustraiak

Sarreraren salmenta | Venta de entradas

ONLINE

www.ekainberri.com

943 86 88 11

Diskoak

IKER BARANDIARAN



Izan
Kokein.
Auto ekoizpena.
Iraupena: 47'25".
15 euro.

Norberaren lanean sinistearen emaitza

EIBARKO Kokein taldea indarberrituta eta oso gogotsu itzuli da agertokietara, urte batzuetako isilunearen ostean. Zaloaren ahots sendoak gidatutako talde indartsua da, eskarmentu handia duena eta oraingoan ere pauso irmoa egin dute aurrera begira. *Izan* disko borobila da, eta taldea sasoi onenean dagoela erakusten du. Taldeko bateria jotzaile Haritz Letek izan du grabazio eta nahasketen ardura nagusia eta lortu du punk-rocka, post-hardcorea, stone-

rra, hard-rocka, elektronika tanta batzuk zein popa batzen dituen lan honi izaera rockeroa eta soinu zikin samarra gehitzea. Diskoa biniloan bakarrik kaleratu dute, nahiz eta web-gunean kantu guztiak doan deskargatu daitezkeen, bat ezik, *Ametsen mundura jauzia*. Melodia, intentsitatea, zirrara eragiten duten hitzak eta rock estalki gordina guztiak batean.

www.kokein.com

Kokein

«Egin dugun diskorik naturalena dela esan genezake, inperfekzioa polita da»

“Behin izandako griñaren ondarea besterik ez gara”. Esango nuke grinak bizi-bizirik jarraitzen duela eta taldea indarberrituta datorrela. Etenak on egin dizue?

Bai, gogoz gaude, jotzeko irrikaz. Hala ere, ez dugu etenik inoiz egin, egia esan. Itzalean eta lokalean zaude-nean, ezertan ez zarela ari dirudi kanpotik begiratuta, baina etengabe aritu gara lanean. Zuzenekoak egiteko beharraren suak mantentzen gaitu beti aurrera begira.

“... baina asko sinisten dugu sinisten dugun gutxian”. Oraingoan Creative Commons-aren aldeko apustu are eta irmoagoa egin duzue.

Disko hau oraindik ere gureagoa egin nahi genuen eta horregatik gure kabuz kaleratzearen erabakia. Nahiz eta esfortzu handiagoa eskatzen digun, gai garela uste dugu. Taldearen eta entzulearen arteko distantzia motzagoa da orain.



Zain egon gabe euskal herritarrok gure eskuetan egiteko daukaguna gogorarazteko irratirako moduko hitz aproposa izan daiteke, ezta?

Elkar batzeak ematen duen indarra agerian gelditzen ari da. Badirudi kanta honek bati baino gehiagori zerbait esaten diela. Horrekin gelditzen gara.

Izan edo ez izan, azaleko garezurra ikusita, hori etorri zait gogora. Existentialistak jarri zarete?

Diskoaren azalak aurpegi aurrean edukitzean egin zezakeen efektua nahi genuen, “izan edo ez izan” antzeko bat. Agian existentzialismoan jausi gara kon-turatu gabe baina Kokein garela inoiz zalantzan jarri gabe.

Diskoak xehetasun zaindu asko ditu.

Baditu detaileak, xehetasun landuak, baina egin dugun diskorik naturalena dela esan genezake. Guretzat inperfekzioa polita da.

Zalaa, urteetako esperientziak on egin dizu nabarmen. Zorionak! Zer sentsazio dituzu?

Eskerrik asko. Halaxe sentitzen naiz, indarberrituta, harro eta gehiago nahian. Beti ikasten eta esperimentatzen. Pertsonalki eta taldean gogotsu nago, eta *Izan* disfrutatzeko asmoa dut. ■



Ezpalak

JON TORNER

John Miles Foley hil da, bertsolaritza ikertu duen aditua

AHOZKO TRADIZIO KONPARATIBOAN aditu zen John Miles Foley hil egin zen pasa den astean. Mis-souriko Unibertsita-tean (AEB) *Center for Studies in Oral Tradition* ikerketa zentroa-



WWW.DSPACE.CAM.AC.UK

ren sortzaile izan zen eta Euskal Herriko bertsolaritza zuzenean ezagutzen zuen. 2005eko eta 2009ko Bertsolari Txapelketa Nagusietako finaletan izan zen Euskal Herrian. *Bertsolari* filmean ere parte hartu zuen. Ahozkotasanari buruzko 20 liburu idatzi edo editatu zituen eta 160 artikulu baino gehiago idatzi.

XIX. mendeko paisaiak Zarauzko Photomuseumen

HAINBAT ARGAZKILARIK XIX. mendean Europa eta Asiako hiriei eta Niagarako ur-jauzien moduko paisai-ateratako irudiak bildu ditu Zarauzko (Gipuzkoa) Photomuseumek. Bartzelona, Napoli, Salamanca, Paris eta Jerusalemgo argazkiak daude, besteak beste. Argazkilarien artean, bestalde, Giacomo eta Carlo Brogi italiarrak, Felis Bonfis frantziarra eta Francis Frith ingelesa daude. *Paisaia eta arkitektura* ize-neko erakusketa hilaren 27ra arte izango da ikusgai.

Jose Ramon Anda eskultorea Bilboko Arte Eder museoan

BILBOKO ARTE EDER MUSEOAN Jose Ramon Anda (Bakaiku, 1949) eskultorearen 39 artelan izango dira ikusgai irailaren 9ra arte. Egurrezko eta metalezkoak dira eskultura gehienak, baina badira igeltsuzkoak eta marmolezkoak ere. Azkenaldian sortutakoak dira denak. Javier Balda margolari eta erakusketaren komisiarioaren hitzetan, “bere lanaren motorra diren idealismoa, materializazioaren erregistro sentibera eta proportzio eta zehaztasuna edertasun forma legez islatzen ditu Andak”. Denboraren aurkako formak erakusketari buruzko informazio gehiago: www.museobilbao.com.

Joxe Ulibarrena (Azkoien, 1924) eskultore eta etnografoak jasoko du XII. Manuel Irujo saria, ekainaren 2an Lizarran (Nafarroa) egingo den ekitaldian. “Herri honen memoria eta kultura berreskuratzeko egindako lana” eskertzeko eman dio saria Irujo Etxea Elkarteak. Besteak beste, Caracaseko Euskal Zentroaren eta Nafarroako Museo Etnografikoaren sorreran parte hartu zuen Ulibarrenak.

• Jokin Oregi antzerkigileak Max saria irabazi du Patxo Telleria-rekin batera, LKM

Larria, Kutsakorra, Mendebaldekoa lanari esker. Berriak elkarrizketa egin dio: «Asko poztu



TARTEAN.COM

nintzen irabazi eta berehala zorion zaparrada bat hasi ginelako jasotzen eta konturatzen zarelako zure sari-ekin ere jendea pozten dela. Sariak esan nahi duenarekin ere bai. Nik ez dut uste zehazki obra honengatik jaso dugunik saria, baizik eta gure ibilbideagatik. (...) Nire ustez, antzerkira datorren jendea, edozein artelaren aurrean jartzen den pertsona oro, barru-barruko tekla hori ukituko dion beste norbait bilatzen ari da. Bakarrik sentitzen gara, eta sormen lan ederrek bakarrik ez gaudela gogoratzen digute, beste inork sentitu duelako guk era anonimoan sentitutakoa».

• Alvaro Arrizabalaga arkeologoaren hitzak jaso ditu *Euskonews&Media* agerkariak:

«Aztarnategiak eta arkeologia, oro har, zatitxo bat dira kultura ondarean. Lurraldeari itsatsita, hori bai. Eta desarrollismoaren ondorioak pairatu ditu, batez ere hainbat azpiegituraren eraikitzearekin. Noski, gure administrazioek ahalmena daukate datorkigun egoera txarrari aurre egiteko. Aitortu behar dut, dena den, kritikoa naizela orain arte ikusitakoarekin eta eszeptiko samarra naukazu krisiak euskal administrazioak adimena zorroztera eta bide alternatiboak bilatzera eramango dituenaz. (...) Ongi ezagutzen dut arkeologiari dagokion esparrua eta egia da arautegia gehiegikeriaz josita dagoela. Hainbat eta hainbat arazo saihestu ahal izango lirake, baldin eta area desberdinetan esku hartzen dugun pertsonoi kontsulta egingo balitzaigu».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Benetan?

BENETAN? Olsen bixki gatzgabe horien ahizpa gaztea da filmeko protagonista? Bada, argi dago familia horretan talentua nork duen. Elizabeth Olsenek ederki antzeztu du sekta batetik alde egin duen neskaren oinazea, nahasmena, pixkanaka paranoia bihurtuko dena. Eta ederki antzeztu du sekta barruan bizi dituen hasierako lilura, ondorengo beldurra. *Flashback* bidez tartekatzen dira bi istorioak pelikulan, baita Martha-ren buruan ere –hori baitu egiazko izena, nahiz eta sekta barruan Marcy May deitu, eta Marlene izenez erantzun telefonoa hartzerakoan, sektako gainerako nesken antzera–.

Bidaia psikologiko eta fisiko interesgarria garatu du zuzendariak, buruko herstura eta ahulezietan barna. Gizakia ahul bihurtu baitaiteke, menpeko, eta barrutik hustu, kasik konturatu ere egin gabe, atsegina eta jakintsua dirudien liderraren kontrolpean. Baina sektatik aterata ere nekez egokituko da protagonista ahizparen eta haren senarraren bizimodu burgesera. Kontraste handia da Martharentzat –Marcy Mayren-

Martha Marcy May Marlene. Zuzendaria: Sean Durkin. Aktoreak: Elizabeth Olsen, Sarah Paulson, Hugh Dancy, John Hawkes. 2011, AEB. 102 min.



tzat? Marlenentzat?—, gizarteko arauetara baino, sektako eredura ohituagoa. Trauma gehitxo, gertatu berriak. Ezinegona eta antsietatea taxuz irudikatu ditu zuzendariak, baita sekten aurpegi bikoitza ere, eguneroko lasaia eta aldi berean susmagarria.

Bai, tentsioa mantendu arren indartsuagoa izan zitekeen filma; eta batez ere bai, bukaerak –hobe esanda, bukaera ezak– herren uzten du emaitza. Baina ordainetan dugu, Sarah Paulson eta Hugh Dancy aktoreen interpretazio osatuekin batera, Olsenen aurkikuntza. Bere begirada galdua, hauskortasuna, naturaltasuna eta freskotasuna. Ibilbide oparoa aurreikusiten diogu. Benetan.



Euskal Hizkuntzalaritza eta Filologiako MASTERRA 2012/2013

Euskal Herriko Unibertsitatea / Gasteizko Letren Fakultatea

Ikerketa masterra doktoretzarako aukerarekin, 3 ikerlerro hautatuz 5etik:

- Hizkuntzalaritza aplikatua
- Euskal literatura
- Euskal gramatika
- Euskararen (aurre)historia
- Euskalkiak



Eskolak urritik abendura arte eta otsailetik martxora arte; 60 kredituak urte betean edo bitan egin daitezke; urte betean eginez, goiz eta arratsalde (10:30-13:30 eta 16:00-19:00); bi urtean eginez, goizetan ala arratsaldeetan baizik ez.

Argibide akademikoak: Xabier Artiagoitia (945 013 150)

xabier.artiagoitia@ehu.es

Argibide administratiboak: Guille Ibeas (945 013 410)

guillermo.ibeas@ehu.es

Aurrematrikulazioa maiatzaren 31 arte



UPV EHU

ANA ZAMBRANO

GORPUTZA- REN GURLIN ----- LOALDI (BIZKAIAN)	BORROKA KIROI ----- ESERLEKUA, JARLEKUA	ALKANDORA- REN GAINEAN JANTZEN DEN JANTZIA	IZAN EZIK, SALBU ----- NORAT ATZIZKIA	INFIN., OSATU ----- ARRANTZA- TRESNA	ERARA ----- PERTSONAIA- REN IZENA	SAKI, EBAKI ----- ESKARIAK, ERREGUAK	
		ARTOA LANDATU DEN SOROA ----- IRIDIOA		AGINDU ----- SEGUNDOA			
PERTO- NAIAREN SORTERRIA ----- SUMINKOR					NORBAIT ----- ZINTZO		
OIHU, HOTS	NONGO ATZIZKIA ----- PERTSONAIA- REN ABIZENA		 INIGO AZKONA			Bi ERRO- MATAR ZENBAKIZ ----- IMANA	
		BABA, BABA- LARRUA				TORTURAREN AURKAKO TALDEA ----- NAFARROA- KO HERRIA	HONA GARRAIATU
NAUKA ----- BURU BATZAR							
	ERRESIS- TENTZIA ----- GARRAIOBI- DE MOTA					EME SORTZAILEAK ----- ADIERAZI	
EUSKAL TELEBISTA ----- ALDAKOR- TASUN		ELEFANTEA- REN LETAGI- NEN OSAGAI ----- SUARI DARIONA				ALDE!, OSPA! ----- NOREN ATZIZKIA	ENERGIA ----- BIHI, GARAU
					ROENTGEN ----- ERBIOAREN SINBOLOA		
ERGEL, INOZO ----- BANEUKA			AZKAR, BEREHALA ----- GIGA				
		INJINERU					

Kike Amonarrizen umorea

	T	B	J	A	O	E	Z
B	I	A	O	A	R	A	S
M	U	X	I	K	A	M	A
K	O	L	E	R	A	T	S
		K	O			O	N
D	E	I				T	A
	N	A	U			I	Z
B	B		R			A	M
E	T	B		B		U	E
B	I	R	E	A	S	U	N
T	E	T	E	L	E	L	A
B	A	N	U	I	N	G	E
						N	I
						A	R
						I	E
						K	A
						E	K
						A	S
						O	R
						E	A
						Z	

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

Gure ertzetan

250 kilometro inguru du Euskal Herriko kostaldeak. Itsasoari begira bizi izan gara beti, eta hala jarraitzen dugu. Lanerako lehen, aisiarako orain. Ehun hondartza inguru dira horren lekuko. Baina plaia eta portu ederrez gain bada zer gozatua Bizkaia, Gipuzkoa eta Lapurdiko kostan. Hiru proposamen aurkituko dituzue datozen orrialdeetan. Batetik, itsas labarrek gordetzen duten bizi oparoa aurkitzeko gonbitea egingo dizuegu; bestetik, gerrak, edo gerra nahiak, gurean utzitako arrastoen bila joango gara; eta azkenik, itsas azpiko mundu miresgarria hobeto ezagutzera murgilduko zaituztegu.



PEDRO TAPIAS/BASKIMAGEN



ONINTZA IRURETA AZKUNE

Zumaia (Gipuzkoa)



Harri azpian begira

Zumaiaiko Algorrin ospea flyshek daukate, gure planetaren historia ageri-agerian uzten duten itsasertzeko harrizko geruzek. Mundu guztiko geologoentzat paradisu dira eta kaletarrentzat bisita gidatuak prestatu dituzte. Guk ordea, geologia kontuak alde batera utzi eta itsasbeheran, ur putzuetan eta harri azpian dauden bizidunei egin diegu bisita.

ZESTOAKO Katamarrua Natur Taldeak udaberri hasierarako prestatu zuen Zumaiarako txangoa. Antolatzailerik ezusteko goxoa izan zuten; 50 lagunetik gora azaldu ziren eguzki biribileko igande goiz hartan. Hogeitik gora haurrak ziren. Ur putzuetako abentura honetara umeekin joango bazarete kontuan izan oinetakoak eta arropa. Hau da, oinetakoen zolak ez daitezela izan irristakorrak, zuek ikusi uretako oinetako bereziak eramango dituzuen ala busti gabe ibiltzekoak. Arropa aldatzeko eramatea ere komenigarria da, haurrak –baita heldu batzuk ere– emozioaren emozioz blai egiten baitira.

Esan beharrik ez dago halako ekosistema aberatsari, biologiaz dakienak zuku handiagoa aterako diola. Hara hurbildu ziren zestoarren gehiengoak gutxi zekien itsasbeheretako bizitzaz, eta seguru gaude batek baino gehiagok bi burutazio hauek



ONINTZA IRURETA

Zaindu zure burua, harkaitzetan irrist egin gabe, eta zaindu bertako bizidunak, bake ederrean zeuden-eta gu iritsi arte.

izan zituela ur ertzerantz iritsitakoan: hemen non daude bizidunak? Eta, goiz osoan ez ote naiz aspertuko?

Egia da Katamarrua taldeak biologo aditu eta arituak zituela udabe-

rriko goiz hartan; hamarnaka animaliatxo erakutsi eta deskribatu zizkiguten. Alabaina, gutxi jakinda ere bada zer begiratu. Metro koadro oso gutxian “aurkikuntza” bikainak egin

Goldaratz (Nafarroa)
**LOPERENA
ETXEBERRI**
landetxea

☎ 948 503 238
ap.etxeberr@terra.es



Urrutia
nekazalturismoa

Santa Marina, 9 · Osma (Araba)
☎ 945 063 167 / 627 082 799
www.agroturismourrutia.com

LIERNI ARRIETA IRURETA



Itsas triku arrunta, ostarrena Zumaian, itsas lakatza Itziartik Mutrikura, *Paracentrotus lividus*.



Izkira, *Palaemon elegans*.

LIERNI ARRIETA IRURETA

ONINTZA IRURETA



Lierni Arrieta, harria jaso eta bilaketan.



Aktinia gorria, itsas tomateak, *Actinia equina*.

ONINTZA IRURETA

daitezke. Ur putzuetako bizitza aurkitzeko bidea osoa erraza eta, era berean, oso kontuz egin beharrekoa da. Harriak altxatu eta albo batean utzi behar dira, azpikoz gora. Azkar demonio begiratu agerian geratu den ur putzuan, eta lasaiago, orain arte azpialdea zen harriaren aldeari. Urez betetako kuboak eskura baduzu

hantxe jaso aurkikuntzak eta liburgidaren (*Flora y fauna de las costas de España y de Europa*, Omega argitaletxea) laguntzaz banaka-banaka errepasatu. Hantxe izango dituzu karra-marroak –hamarrak, Zumaia euskaraz–, izkirak, itsas tomateak, anemonak, ostarrenak... Akordatu azpikoz gora utzitako harriak lehe-

nean lagatzea, ez deza-tela gal etxeko bakea betiko. ■



Horrelako txangoren bat egin nahi baduzu gidarekin, Euskal Kostaldeko Geoparkeak Debatik abiatuta antolatzen ditu: <http://www.geoparkea.com/>

SAKANA
Horren GERTU horren ERRAZ



Sakana
Urbasa

Landa Turismoa
Turismo Rural




www.sakanaurbasa.com

Bidelagun
Sakanako landetxeen elkarteak



AMAIA UGALDE BEGOÑA

Hendaia (Lapurdi)



Kostaldeko gotorlekuak: itsasokoak ez ziren enbaten zain

Bertan beti egongo balira moduan. Haitzak legez, hormigoizko eraikinak itsasertzera begira aurkitu ditzakegu Hendaian; bunkerrak, Abadia gaztelutik gertu, Arroka Bikiak parez pare.

Guztira, naziek Hendaia inguruan 150 bunker eraiki zituzten Bigarren Mundu Gerran.

Asko desagerrarazita badaude ere, larre berde artean eraikitako defentsa lerroaren aztarnak ikus daitezke.

HENDAIATIK NORMANDIARA 12.000 bunkerrez osatutako harresia eraikitzeke agindua eman zuen Hitlerrek 1941eko irailean. Naziek Ingalaterrarekin zuten gerrako porrotak zirela eta, estrategia aldaketa bat hartu zuen momentu hartan führerak. Indarrak ekialdera, Errusiara, bideratuko zituen armada naziak eta mendebaldea zaintzeko 4.000 kilometrotan Atlantikoko Harresia izenekoa eraiki zuten.

Bigarren Mundu Gerra amaitzerakoan Frantziako agintariak bunker eta lubakiak desagerrarazi zituzten, baina batzuk zutunik

jarraitzen dute oraindino. Hendaian, Abadia gaztelutik oso gertu, dozena erdi bunkerren aztarnak erraz ikusteko moduan daude. Santa Anako lurmuturrean, amildegi ertzetan daude ondoen kontserbatu direnak. Kostaldeko defentsa gunerik mardulenetakoa izan zen Hendaia.

Aurreko egunetan euria egin badu, lokatzetarako arropa egokiarekin joatea komeni da bunkerretara gerturatzeke. Abadia gazteluaren eremuan, Hendaia hondartzatik gertu, Bidaraineraino doan bidea dago, eta bertatik abiatu daiteke

Santa Anako lurmuturrera eta bunkerretara. Bidea hartu eta nahiko segidan Larretxea izeneko baserria dago, eta bertan, ingurumenaren interpretazio zentroa.

Abadia eremuan bidezidor ugari erosten dute bisitaria itsasertzertantz. Bide osoan atzean edukiko dugu fantasiatzkoa dirudien Anton Abadiaren gaztelua. Bidezidorrak jarraituta, ia hiru urtez soldadu nazien bizitoki izan ziren bunkerretara helduko gara. Bidea ez da guztiz laua, tarte askotan lubakien gainean egindako bidea delako. Bunkerren eta lubakien hormigoi



Aldori landetxea
Zabale, 8 · Muxika (Bizkaia)
☎ 94 627 15 09
www.aldori.es



Gorozika
Aterpetxea
www.gorozika.com
Gorozika Auzoa, 25 · Muxika (Bizkaia)
Harremanetarako:
☎ 946 731 332 · gorozikanatura@gmail.com



Haize Arrosa

Ondoen mantentzen den bunkerren gainean, Abadiako Adixkideak elkarteak ipinitako Haize Arrosa dago. Naturaren elementuak eta ipar haizearen norabidea ditu ardatz. Ingurugiroarekin estu lotutako itxaropenezko mezu bat transmititu gura izan dute Abadiako Adixkideek Haize Arrosarekin. Elkarte horrek Hendaiaiko kultura, ondarea eta natura zaintzeko hainbat lan egiten du.



Ezkerrean, zutunik irauten duten bunker apurretako bat. Eskuman, Abadia gaztelua.

zati txikiak ere ikus daitezke aztarna handietara bidean.

Etheen moduan apainduta

Hasieran bunkerrotan eliteko soldaduak egon ziren, 40 eta 55 urte bitartekoak, baina gerrak aurrera egin ahala, gaztetxoak edo agureak bidali zituzten soldadu haien ordeaz,

soldadu onenak Errusiako frontera bideratzen zituztelako. Bidasoa eta Baiona artean alemaniarrek 15.000 soldadu inguru eduki zituzten itsasoko erasoan zaindari.

Bizimodu lasaia eduki zuten soldaduek Lapurdiko bunker eta lubakietan. Aztarnak ikusita irudikatu ezin den arren, bunkerretako

hormak etxeetakoak bailiran apaintzen zituzten, eta bertan duxak, jantokiak eta logelak zeuzkaten. Hendaia hartzean, Abadia gaztelua kuartel bihurtu zuten naziek, eta jatekoa bertatik eroaten zuten bunkerretara egindako bidexketatik. Janari faltak eraginda, soldaduen artean desertzio



ITSAS MENDI

Karabanak eta autokarabanak



► Europako marka garrantzitsuenak :
KNAUS, HYMER, HOBBY, BENIMAR, SUN
ROLLER, RIMOR.

Salmenta ondorengo zerbitzu bermatua

► Furgoneten eraldaketa

E-posta: itsasmendi@itsasmendi.com / www.itsasmendi.com

Errep. Nazionala 1 - 20140 Andoain (GIPUZKOA)

Tel. 943 59 32 90 - Faxa: 943 59 41 73

Haitz Bikiak

Hendaiaiko ikuspegi ederrenetakoa daude Santa Anako lurmuturretik. Behin bertara gerturatu, ezinbestekoa da Abadia gaztelua bisitatzea. Udan barrutik bisitatu ahal izateko zabalduko dute, uztailearen 18tik abuztuaren 21era. Itsasoko ikuspegia gaztelua bezain ikusgarria da. Dunbak edo Haitz Bikiak izeneko arroka ezagunak daude lurmuturraren parean. Kondairak dionez, Haitz Bikiak jentil batek bota zituen itsasora, habaila erabilita. Amildegia, kalak eta Loia badia ikus daitezke bertatik.



PEDRO TAPIAS/BASKIMAGEN

ANAITA UGALDE BEGOÑA



Itsasertzeko lerroan, bunker batzuk gotorleku hutsak ziren, eta beste batzuek metrailadorea zeukaten. Oraindik metrailadorea mantentzen duen bunker bat badago Santa Anako lurmuturrean, Kapelu izeneko muturrean. Berau da ondoen mantentzen dena. Barrura sartzeko moduan dago, eta gela bi eta begiratokia dauzka, metrailadorearekin.

Nazien ihesa

1944ko uztailean utzi zuten Hendaia soldadu naziek. Joan aurretik soldaduek bunkerretako kanoiak indargabetu zituzten aliatuen esku gera ez zitezen. Bordele pasatuta erresistentziaren eraso jaso zuten, eta Poitiers inguruan errenditu egin ziren 16.000 bat gizon. ■



asko izan zen, eta alemaniarrek gerra galtzen zebiltzala jabetzeaz ere, askok ihes egin gura izan zuen.

Diotenez, soldadu asko hil zen igerian Hondarribira ihes egiten saiatzeaz.



LIZARRA
KANPINA

Lizarra (Nafarroa)
☎ 948 55 17 33
www.campinglizarra.com

Juantxo

TABERNA

Ogitarteko eta pintxo
bero eta hotzetan espezializatua

Enbeltran kalea, 6 · 20003 DONOSTIA · 943 427 405

Gerrek itsasertzean utzitako historia

Kuriosoa da. Defentsarako eraikinen hondakinetan gatazken historia bake apur batekin nahastuta arnasten da. Euskal Herriko itsasertzean mendez mende eta gerraz gerra zutuniki mantendu diren hainbat gotorleku eta eraikin militar daude. Hendaiaiko bunkerrak gerrarik garaikideenaren eraikuntza izan ziren. Aipagarriak dira baita ere Gorlizko faroaren alboan dauden bunkerrak, Gerra Zibilaren ostean Francoren aginduz preso errepublikanoek eginikoak.

XX. mendeko lubakiez gainera, euskal itsasertzean mota askotako defentsa-lekuak ditugu. Gatazken historia bertatik bertara irudikatzen lekuak dira, paisaia ikusgarrietan kokatuak. Kostaldeko probintzietatik bana aukeratu dugu, gerrek itsasertzean utzitako historiaren zertzelada txikiak emateko:

Zokoako gotorlekua

Arrantzan diharduen Ziburuko auzo txiki honen interesguterik handiena gotorlekua da. Enrike IV.ak eraiki zuen XIV. mendean, espainiarren erasoei aurre egin eta Donibane-ko Badia babesteko. Geroago, XVII. Mendean, Sebastien Le Prestre –Vauban legeaz ezagutua– ingeniari militar frantses entzutetsuak berriztatu zuen gotorlekua. Harresia eta dorrearen egitura egoera onean daude. Ikusizun ederra eskaintzen dute harresiaren kontra hausten diren olatuek. Portuko itsasargia ere ikustekoa; monumentu historikoaren izendapena dauka. Gotorlekua ikusi eta gero Zokoatik Ziburura ibilaldi polita egin daiteke.

PEDRO TAPIAS/BASKIMAGEN



Zokoako gotorlekua.

Getxon, Galeako fortea edo Printzearen gaztelua

XVIII. mendeko gotorlekua da. Ingelesen erasoengandik Bizkaiko kosta defendatzeko urgentziaz eta presaka egin zuten eraikin militar hau. Diputazioak agindu zituen beharrak, eta Jaime Sycre koronelaren agindupean inguruko herrietako 600 pertsonen jardun zuten bertan, derrigortutako lanetan. Lanak 1742an hasi zituzten, eta hurrengo urteko udaberrian amaitu. Historialariek diote, gotorlekua ez zuten inoiz borrokarako erabili. Militarrek utzi eta gero, bertan Bizkaiko lehen itsasargia egin zuten 1782 inguruan. Britainia Handiko legioak birritan suntsitu zuen faroa, 1812an eta 1836an, karlistadetan liberaleri laguntzera etorri zirenean. Gaur egun dagoen itsasargia XIX. mendean eraiki zuten, zaharraren lekuan. Aranzadi elkarteak duela sei urte zaharberritze lanak egin zituen Galeako gotorlekuan.



ASIER MENTXAKA

Galeako fortea.

Erreterian, San Markoseko gotorlekua

Izen bereko mendian eraiki zuten San Markoseko gotorlekua. Leku estrategikoa da, bertatik Donostiako Badia eta Pasaia ikusten dira eta. Ikuspegi ikusgarria. Bigarren gerla karlistan eraiki zuten, karlisten tropa ibiltariak babesteko. Gerra amaitutakoan, 1876an, Oiarzungo defentsa lerrora batu zen, Pasaiaiko portua defendatzeko lerrora. Gaur egun berriztuta dago gotorlekua, eta jardunaldi, ekintza sozial eta ospakizunetarako erabiltzen da. Oarsoaldeko begiraleku ederra.

Andutza landetxea

Angelutxu auzoa, 15
Ea (Bizkaia)
☎ 944 651 036
www.nekatur.net/andutza

Janari
tradizionalean
espezializatua

Jatetxea
Taberna

☎ 943 429 875
Fermín Calbetón, 3
20003 Donostia

UNAI BREA

Argazkiak: Jorge Lopez/VisualNatura

Urpeko mundua

Erreinu isilean bisitan

Lehorra eta itsasoa, bien talkak osatzen du kostaldea deritzogun hori. Bigarren azpian murgiltzeak sentrazio paregabeak bizitzeko aukera ematen digu, baita biziaren festa bertatik bertara ikusteko ere.

Nahiz eta, zoritxarrez, festa horretan gero eta lagun gutxiago dugun zain, natura izorratzeko hain zale garen hanka bikook.



Baduzu
norekin joan

AUTOBUSAK
Aizpurua



www.autocares-aizpurua.es · info@autocares-aizpurua.es
20170 USURBIL · 943 363 290

MANU
Automekanika

Dieselean berezitua
IAT aurreko errebisioa



P.º Ubarburu, 15 - bajo
Pol. 27 - Martutene

Tel. y Fax: 943 46 47 19
20014 DONOSTIA



Uretaratzeko prestatzen, Ogoño lurmuturraren inguruan, Bizkaian.

GRABITATEAZ ASKE. Horrela sentitzen gara lehorrerako diseinatutako izakiok urpean. Ez da kasualitatea astronauta izateko prestakuntzaren osagaietako bat urpekaritza izatea. Erraz mugitu gaitezke urpean, baina astiro, ezinbestean. Eta flota-garritasuna kontrolatzen jakin behar da, eskarmentudun urpekari batek esan digunez.

Flota-garritasuna kontrolatzen bakarrik ez, beste zenbait gauza ere ikasi beharko du urpean murgildu gura duenak. Azken batean, ez da gure ingurune naturala. Euskal

Herrian hogeiren bat enpresak eta klubek eskaintzen dituzte urpekari-tza ikastaroak, astebete ingurukoak. Mailak eta mailak daude, baina ikastarorik oinarritzarenak hamazortzi metroko sakoneraraino murgiltzeko aukera emango digu, munduko herrialde guztietan baliagarria den ziurtagiria medio. Nahikoa da hori hain hurbil eta hain ezezagun dugun mundu baten liluraz gozatu ahal izateko.

Behin ikasita, urpekariak badu bere kasa itsasoratzea, baina aukera hobia da –askoz merkeagoa dela-

ko– aipatutako klub edo enpresa horietako batekin joatea. 30 euroren bueltan dago ekipoa alokatzea, eta murgiltze-puntura eramango zaituzten ontzia nahiz gidaria ordaintzea.

Olatuak arerio

Oraintsu hasten ari da Euskal Herrian urpekaritza egiteko sasoi-rik egokiena, urri edo azarora arte luzatu daitekeena. Jakina da, jakina denez, Kantauri itsasoak ez diola baretasunari zor bere ospea. Metro batetik gorako olatuak daudenean

Kontseju jatetxea



- Eguneko menuak
- Ospakizunak
- Asteburuko menu bereziak
- Plater konbinatuak

© 943 683 327 / 656 710 073
Hirigunea, 1 · Elduain (Gipuzkoa)

SaiazGetaria H o t e l a



Roke Deuna, 25 · GETARIA
www.siazgetaria.com · Tel.: 943 140 143



Goian, ezkerrean: nekora, Kantauri Itsasoko krustazeo ugarienetako bat. Eskuman, urpekari bat arrain bati begira. Behean, arrain sarda igerian.

deseroso samar sentitu daiteke norbera urpean, horregatik haize-tik babestuta dauden lekuak dira onenak. Nolanahi, udaberrian eta udan ez dira falta urpekaritzarako baldintza egokiak eskaintzen dituzten egunak euskal itsasertzean. Leku bi aipatzeagatik, Getariako (Gipuzkoa) San Anton mendia inguruak eta Bermeo kostaldea nabarmenduko ditugu. Bigarren horretan, kaitik hiru miliako distantziara, Mina Mari ontzi hondoratua ikusteko aukera dago. 60ko hamarkadan urperatu zuten, portuan su hartu eta gero.

Urtaroen menpe, lehorrean nola

Itsas hondoa ez da uniforme. Lekuaren arabera aldatzen da, urtarorekin arabera ere bai. Maiatzean, eguraldi ona hastearekin batera, algak hazten dira, eta neguan ez duen itxura ematen diote itsasoari. Inguru berdez tindatzen hasiko da sasoi honetan, eta hori izango da kolore nagusia ekaina iritsi orduko, algek hondo-

urpeko munduari. Nola basoan, itsas hondoan ere ederra da larraz-kena.

Hori harrizko hondoetan gertatuko da. Hareazkoetan, oso bestelakoa da paisaia. Beren itxura ingurunearekin nahasten maisuak diren arrainak ikus daitezke bertan: mihi-arrainak, oilarrak, arraiak... Harri artean, berriz, bestelako ezkutaketa teknikak erabiltzen dituzten animaliak izango ditu bidaide urpekariak: olagarroak, nekora, itsas aingirak, zarboak eta beste asko. Pena da, ezkutatzeko trebeziak ez diela balio izan beren kopurua urtez urte urritzea saihesteko. Eta hala ere, lehorrekoa baino askoz mundu aberatsagoa izaten segitzen du itsaspekoak, faunaz zein landarez.

Denboraren muga

Altxor bizidun horiekin partekatu dezakegun denborak muga dauka, ez ahaztu mundu honetan gonbidatu hutsak garela. Seguru denek entzun duzuela inoiz deskonpresio

hitza. Gainazalera arriskurik gabe itzuli ahal izateko erabili behar den teknika da hori, baina ez da beharrezkoa olgetako urpekaritzan, alegia, lerrootan hizpide dugun urpekaritza motan. Baldintza bakarra jarriko digu itsasoak: geldiuenerik egin gabe itzuli nahi badugu, ezin izango dugu arauak diotena baino minutu bat bera gehiago eman ur azpian. Hamazortzi metroko sakoneran, 56 minutuko bisita egiteko baimena baizik ez digu ematen naturak. Hori, hotzak ez bazaitu lehenago bueltatzera behartu. Murgiltze bat baino gehiago egin daiteke egun berean, baina gutxienez ordubeteko tarte utzita batetik bestera. Zenbat eta sakonago jaitsi garen, orduan eta luzeago itxaron behar dugu. Ez dirudi gehiegizko ordaina, grabitatearen menpe ez egotearen truke. ■



Azpea

NAVARRA
Denominación de Origen

ARDO EKOLOGIKOAK

Lumbier (Nafarroa)

www.bodegasazpea.com

%50
mendia

www.gipuzkoamendizmendi.net

%50
itsasoa

www.gipuzkoaturismo.net



Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

Desagertutako espezieak tsunamien ondoren agertzen dira berriz



IKERLARI TXILETARREZ ETA ESTATUBATUARREZ osatutako talde batek 2010eko otsailaren 27an Txilen izandako tsunamiaren eragina aztertu du, eta lortutako emaitzak harrigarriak izan dira euren ustetan.


8,8 graduko lurrikarak sortu zuen tsunamiak Txileko itsasertzeko eremu zabalak jo eta animalia zein landare asko hil zituen. Tsunamiaren ondorioz itsas hondoa zeuden hainbat eremu azaleratu ziren, eta hondartza batzuk desagertu eta beste batzuk azaldu ziren.

Paisaiaren aldaketa horiekin batera aldaketa dinamikoak ere gertatu dira. Adibidez, leku zehatzetan aspaldi desagertuta zeuden landare batzuk hazi egin dira, eta azkar gainera, bi urte baino ez baitira igaro tsunamia gertatu zenetik. Gauza bera gertatu da arrain txikiekin.

Ikerlarien arabera, oso kontuan hartu beharrekoak dira tsunamiek gure itsasertzetan sortzen dituzten ustekabeak.



Korrika egiteak bizitza luzatzen du



1976AN COPENHAGEN CITY HEART proiektua abiatu zen, eta maiatzeko lehen larunbatean, EuroPrevent 2012 batzarrean, lehen emaitzak aurkeztu dituzte.

Korrika erregularoki aritzen direnen artean bizia batez beste luzatu egiten omen da: 6,2 urte gizonen kasuan eta 5,6 urte emakumeenean. Guztira, 20 eta 93 urte arteko 20.000 lagun aztertu dituzte. Emaitza onenak korrikaldiak gehiegi nekatzeraino egin ez dituztenenak izan dira, hau da, muturreko kirola egin ez dutenenak. Pertsona horiek izandako hobekuntzen artean hauek aipatu daitezke: oxigenoa hobeto xurgatzen dute, insulinarekiko sentiberatasuna igotzen da, kolesterol ona gehitu eta trigli-

zerido maila jaisten da, eta bihotzaren erritmoa hobetzen da. Alde psikologikotik ere onuragarria da korrika egitea.



Fukushimako erradiazioa AEBetan

Atal honetan askotan hitz egin dugu eta hitz egingo dugu Fukushima zentral nuklearraren leherketak eragindako ondorioez. Oraingoan esportatutako ondorioak dira albiste: iodo erradioaktiboa aurkitu dute AEBetako New Hampshire estatuan. Gutxi izan da eta, antza, arrisku txikikoa, baina zer gehiago ote dago? <http://ttiki.com/37674> (Gaztelaniaz)

Bere burua osatzeko gaiten materialaren bila

Plastikoez kalteren bat jasatean, askotan ezinezkoa izaten da konponketa. AEBetako ikerlari talde batek gizakiaren azala imitatzen duen plastikoa diseinatu du, hau da, bere burua osatzeko gaitasuna duen plastikoa.

<http://ttiki.com/37675> (Gaztelaniaz)

Teilatu zurien garrantzia beroaren aurkako borrokan

Berotegi efektua handitzen den neurrian, hainbat hiri handitan gero eta garrantzi handiagoa hartzen ari da beroaren aurkako borroka. 2011ko uztailaren 22an New Yorken izugarrizko beroa egin zuen, eta gainazal iluneko teilatueta 77°C neurtu zituzten; gainazal argikoetan, aldiz, 50°C.

<http://ttiki.com/37676> (Gaztelaniaz)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Landareak

JAKOBA ERREKONDO

Botiken boterea

CINCHONA GENEROKO kino zuhaitzen azaletik sortutako kinina helgaitza edo malaria tratatzeko ona zela zabaldu zenean, European izen ugari eman zitzaion azal horri. XVII. mendearen erdian Peru eta Bolivia aldean erregeorde “lanetan” zenaren emaztea zen eta ustez kininaren berri zabaldu zuen Chinchongo kondesaren omenez “kondesaren azala”, ustez benetan jakintza hori topatu eta jaso zuten gerlarien omenez “jesuiten azala” eta topatu zen tokiaren goraintzian “Peruko azala”. Jakinduria hori ikertu eta bere altzoan jaso zuen kulturaren omenez “kitxuen azala” jartzea ez zitzaion inori bururatu European.

Jesuita batek Erromara bidali eta padura eta istingadi ugariz inguratutako hirian helgaitza sendatze bidean jarri zuenean, laster zabaldu zen kininaren dohain eta ahalmenen albiste. Denek nahi zuten etorkizun handiko botika horren irabazpide onuragarriaren puskaren bati heldu. Ameriketatik Espainiara etengabe iristen ziren lurralde haietan topatutako genero horretako espezie berrien berriak. Ingelesak eta herbeheretarrak ez ziren makal ibili, eta Ameriketatik esportatzea galarrakia egonagatik, non edo handik lortzen zituzten haziak, estraperloan errearen goiti ordainduta, ziur aski.

Kininari esker lasai sartu ziren europarrak Afrika beltzean, sekula igaro gabeko zingira eta ur-ustel bel-dugarrietan barrena. Munduaren gerri aldeko tropikoetan burutzen ziren gerretan estrategiko bihurtu zen kinina: Indian eta Asia hegoalde osoan eta Afrikan batez ere. Herbeheretarrak ekoizpenean eta merkaturatzean tematu ziren. *Cinchona calisaya* espeziea luze-zabal landatu zuten Javan eta 1930eko hamarkadan hamaika milioi kilo kinina ekoizten zuten urtero, munduko kinina ekoizpenaren %97. 1944an kinina sintetiko sortu zuten laborategian, baina ikaragarri garestia zen. Bigarren Mundu Gerran alemanek Herbehereak eta japoniarrek Filipinak eta Indonesia okupatu zituzten eta helburu zuten kininaren mundua bereganatu. AEB konturatu zen, baita Filipinetatik lau milioi hazi ezkutuan ateratzea lortu eta Costa Rican landatu ere, baina berandutxo!

Cinchona calisaya espezieko kino arbola Boliviako Calisaya mendian aurkitua zuten. Berari buruzko lehen aipamena 1792ko urriaren 27an idatzitako eskutitz batean dago. Chinchongoarenak ez, oraingoan beste konde baten idazkariak idatzitakoa, Beirako Ezpeletako kondearenak, Kuban gobernadore eta Hego Amerikan erregeorde izan zenarenak, Jose Manuel Ignacio Timoteo de Ezpeleta y Galdeano (1739-1823).



Irakurleak galdezka

Kaixo Jakoba! ARGIA-ko azken aldizkarietan agertutako sendabelarren gainean galde-tu nahi dizut. Badakit tokian tokiko espresioak daudela eta belar ezberdinek izen bera eraman dezaketela, baina neuk eza-gutzen dudan txitxare belarra latinezko *Tanacetum parthenium* izango litzateke, eta zuk aldizkariaren 2.318. zenbakiko argazkian *Artemisa vulgaris* (belar mina) izenarekin azaltzen duzuna bera da.



Tanacetum parthenium.

Ez dakit *Matricaria parthenium* eta *Tanacetum Parthenium* berdinak diren eta zenbait lekutan *Artemisa abrotanum* ere txitxare belar bezala ere ikusi dut. Nahaste izugarria dut familia horrekin. Argitzea bai ote? Pili Otaegi (Larraul).

Kaixo Pili. Egia da, izenak eta izanak nahasten ditugu. Txitxare-belar edo zizare-belar izena landare askorena da. Aipatzen duzun argazkikoa *Artemisa vulgaris* da, ez *Tanacetum parthenium*. Artemisiak lore grisaxkak ematen ditu, Tanacetumak, aldiz, larranbiloa edo kamamila antzekoak.

Compostae edo lore elkartu edo konposatuak dituzten landareen familia hori ikaragarria da. Elkarrengandik bereizi eta bere sendagaitasuna ezagutzen hasteko nik dakidan bide motzena Pio Font i Quer maisuaren *Plantas medicinales, El Dioscórides renovado* liburua da.



Lore-lan
Lurez S. Coop.

Lorezaintza proiektuak
Mantentze-zerbitzua

Tel. 609 42 45 47 · Faxa: 943 79 49 12 • lorelan@euskalnet.net

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

“Sekulakotz galerak enetako dire”



Lepantoko gudua (1571) galeren arteko historiako itsas gudurik handiena izan zen. Arraunean aritzen ziren gizonak ez ziren soldadu libreak, preso kondenatuak baizik.

HAZPARNE (LAPURDI), 1815. Martin Larralde *Bordaxuri* galeretara kondenatu zuten, aita ustez tiroz hiltzeagatik. Handik hiru urtera, zigorra betetzen ari zela, gero Pantxoa eta Peiok ezagun bihurtuko zuten *Galerianoaren kantua* idatzi zuen. Handik hiru urtera hil zen. Hala dio lehen aha-paldiak:

*Kantatzera niazu alegera gabe,
ez baitut probetxurik, tristaturik ere;
nehun ebatsi gabe, gizonik hil gabe,
sekulakotz galerak enetako dire.*

Galeretako zigorra ez zen berria. Antzinaroan, Grezian eta Erroman ohikoa zen arraunerako esklaboak eta preso kondenatuak erabiltzea. Eta Bordaxurik bere sentipenak kontatu bazituen, Cartagenako (Murtzia) armategiko artxiboan galerianoei buruzko informazio xehea jaso zuten 1624tik 1748ra. Galeretako Liburu Orokorrak, 25 liburukiz osatuak, zaharberritu dituzte berriki, eta, horri esker, kondena krudelaren inguruko xehetasun ugari jakin ahal izan ditugu.

Eserlekura girgiluz lotuta egoten

ziren beti, eta hantxe egiten zituzten lo, jan eta bestelako behar guztiak. Itsas guduetan ez zituzten askatzen, eta, hala, galera hondoratuz gero, galerianoak ere harekin batera joaten ziren itsas hondora.

Oinutsik zeuden eta ilea larru-arras moztuta eramaten zuten, ihes eginez gero erraz ezagutzeko moduan; bide batez, zorriak saiheste-ko ere balio zuen neurriak. Egunean ogi egosi zati gogortu bat –bizkotxo esaten zioten, optimismo handiz–, baba eltzekari pixka bat eta ura ematen zizkieten bizirauteko.

Hilketa leporatuz gero, galeretan urte batzuk pasatzeko aukera zegoen, baina sexu delituak, edo garai hartan delitutzat jotzen zirenak, gogorrago zigortzen zituzten. Francisco Gimenez ijitoari zortzi urteko zigorra eman zioten hilketa leporatuta; Juan de Moralesek, aldiz, 200 zigorkada eta hamar urteko galera zigorra jaso zituen, *pecado nefando* delakoa egotzita, homosexuala izateagatik, alegia. ■



Arrastoak

Ed Kennedy:
albisterik onena
emateagatik
kaleratua

EDWARD KENNEDY Associated Press (AP) agentziako kazetaria izan zen alemaniarren errenditzearen berri ematen lehena, 1945eko maiatzaren 7an. Edozein komunikabidek amestuko luke Bigarren Mundu Gerraren amaieraren albiste ematen lehena izatea, baina aliatuen ejertzitoak berria bahitu zuen, eta errenditzearen sinadura ekitaldira joandako hamazazpi kazetarietaz ez argitaratzeko esan zien. Europako hainbat tokitan soldaduek borrokan, elkar hiltzen jarraitzen zuten eta Ed Kennedyk albiste zabaltzea erabaki zuen. AP agentziak kazetaria kaleratu zuen horregatik.

Orain, Kennedyn memoriak argitaratu berri direnean, APk barkamena eskatu dio publikoki, hark bere zeregina ederkiki bete zuela onartuz. Berandu: 67 urte joan dira kaleratu zutenetik, eta ia 50 Ed Kennedy hil zenetik.

AP



Diktadurako krimenak

Frankismoa epaituko al du Argentinak?

Argentinan, frankismo garaiko krimenen kontra abian den ekimenak aurrerapausoak eman ditu, eta bi urteko ibilbidearen ondoren, erregimeneko biktima askoren itzaropen nagusi bihurtu da. Espainiako Justiziak garbi esan du -Garzon epailearen kontrako neurriekin- frankismoa epaitzen saiatzea Estatuko legediaren kontra joatea dela. Diktadurako gehiegikerien erantzuleak babesean daude. 1977ko Amnistia Legeak zigorgabetasuna aitortzen die. Zigorgabetasun harresi hori pitzatzea posible denaren esperantzaz abokatu talde bat ari da lanean Madrildik eta Buenos Airesetik.

GORKA BERASATEGI



Argentinako Auzitegi Federalean frankismo garaiko hainbat preso ohi izan ziren epaileari haien testigantza ematen.

CARLOS SLEPOY argentinarra frankismoa epaitegietara eramateko lanean diharduen abokatuetakoa bat da: “Espainian Txileko eta Argentinako diktadurak ikertzeko bultzatu zen ekimenarekin alderatuta, antzekotasun handiak ikusten dizkiot

frankismoaren kontra martxan den salaketari. Argentinan gertatzen denak aldaketa garrantzitsuak eragin ditzake Espainian eta erreakzio segida sortuko dela iruditzen zait”.

Momentuz, elur bola biraka ari da eta bidean gizontzen doa. Azke-

neko bultzada joan den apirilaren 23an jaso zuen. Argentinako Epaitegi Federalean aurkeztu ziren Josu Ibargutxi, Sabin Arana, *Chato* Galante eta Manuel Blanco Chivite, Francoren erregimeneko preso ohiak. Lehenengo biak Goldatu



HERNAN VITENBERG / RAMAL 5 MULTIMEDIA



GORKA BERASATEGI

Ezkerrean: Josu Ibagutxi frankismoko preso ohia auzitegian testigantza ematen, Maiatzako Plazako ama bat aurrean duela. Eskuinean: Carlos Slepoy abokatua, genozidioa eta gizateriaren kontrako krimenak epaitzeko hainbat auzi eraman ditu aurrera, tartean Augusto Pinochet atxilotzea ekarri zuena; orain frankismoko krimenak epaitzeko lanean dihardu.

elkartekoak eta beste biak La Comuna taldeko kideak. Laurek, Buenos Airesera bidaiatu zuten Maria Servini de Cubria epaileari jasan zituzten torturen eta atxilotzeen testigantza emateko. Horrez gain, beste 50 kasu baino gehiagoren dokumentazio eta deklarazio idatziak aurkeztu zizkioten. Besteak beste, Andoni Arrizabalaga, Imanol Laspiur, Enrique Gesalaga, Germán Rodríguez eta Salvador Puig Antichenak. Lau preso ohiekin batera bidaiatu zuen Doris Benegas abokatuak ere eta bi idatzi entregatu zizkion epaileari: Humberto Baena –1975ean *Txiki* eta Otaegirekin fusilatua– zenaren arrebak eginiko deklarazioa eta *Txiki*ren anaiak bidalitako eskutitza. Gema Carreterori aita fusilatu zioten eta haren heriotza salatzeke bidaiatu zuen Argentinara.

Joan den hilean salaketak pisu handiagoa hartu bazuen ere, hilabete batzuren buruan, biderkatu egingo da haren garrantzia, epaileak emandako hitza betetzen badu behintzat. Servini de Cubria epaileak ziurtatu duenez, Bilbora eta Madrilera bidaiatzen ari zirela inguruetako biktimen testigantzak eta dokumentuak jaso ahal izateko. Oraindik datarik zehaztu ez duen arren, bi aukera aurreratu zituen: ekaina ala iraila. Sabin Arana Goldatu elkarterko kidearen ustez “oso pauso garrantzitsua izango da epailearen bisita. Jendea animatu beharra dago. Mundu guztiarekin kontaktuan jarri eta ahalik eta jende gehien lagundu

dokumentuak prestatzen”. Josu Ibagutxi ere ezinbestekotzat jotzen du testigantza uholdea sortzea: “Zirrikitu bat aurkitu dugu, baina ikusi egin behar da zigorgabetasun horma botatzeko nahikoa ote den. Zirrikitua gehiago zabalduko dugu epailea Euskal Herrira joandakoan sekulako jendetza aurkitzen badu testigantza eman nahian. Hori xe da orain gure tresnarik baliagarriena. Epailea Bilbora joandakoan zenbait hilobiren irekieretan egotea nahi dugu”. Goldatu elkarteak bulego birtuala zabalduko du sarean, salaketan parte izan nahi dutenei dokumentuak nola lortu eta testigantza nola egin argitze aldera.

“Zirrikitu bat aurkitu dugu, baina zirrikitua gehiago zabalduko dugu epailea Euskal Herrira joandakoan”

**JOSU IBAGUTXI,
FRANKISMOKO PRESO OHIA**

Argentinan aurkeztutako salaketak frankismoaren epealdi osoko krimenak biltzen ditu, Garzonen saiakerak ez bezala –1952. urterarte ikertzeko asmoa agertu zuen–. Carlos Slepoyk datuaren garrantzia azpimarratu du: “1977ko hauteskundeak arteko gertakizunak hartzen ditu salaketak. Horrek esan nahi du biktimak eta biktuario asko bizirik daudela oraindik. Frankismo-

aren azken urteetan eta Trantsizioan ere hildako asko egon ziren, Gasteizko langileen hilketa eta 1975eko fusilamenduak [*Txiki*, Otaegi eta FRAPeke hiru kiderenak], adibidez. Eta tortura sistematikoa”.

Delitu horiek Argentinan epaitzeko eskuduntza justizia unibertsalaren printzipioan oinarritzen da. Justizia unibertsala onartzen duen edozein estatuk epaitu ditzake beste herrialde bateko delituak, gizateriaren aurkako krimenak direnean. Argentinako salaketaren kasuan, “genozidio” delituak salatu dira. Genozidioa gizateriaren aurkako krimena da, baina bien artean desberdintasun esanguratsuak daudela argitu du Slepoyk: “Gizateriaren aurkako krimena eraso sistematizatu da, biztanleria zibilaren aurkako, modu masibo eta bereizi gabeen burutua. Genozidioak, aldiz, giza talde osoak suntsitzea du helburu. Gizartearen sektore bat ezabatzeko asmoa. Argentinako diktadura “genozidio” gisa epaitu beharko litzateke, adibidez. Militarren atzean zeuden talde ekonomikoaren erantzukizunak ikertu ahal izateko”.

Espainiako Justiziak frankismo garaiko krimenak ez epaitzeko duen argumentu nagusia 1977ko Amnistia Legea da. Diktadura garaiko krimenen zigorgabetasuna jasotzen du legeak. Nazioarteko zuzenbideko hainbat akordioaren arabera, baina, zigorgabetasuna ezin daiteke aplikatu giza eskubideen aurkako krime-

nen kasuan, ezta preskripzio printzipioa ere. “Kasu batzuk oso garbiak dira. Ume bahituen eta pertsona desagertuen kasuak dira esanguratsuenak, oraindik amaitu gabeko delituak direlako. Egunero gertatzen dira. Pertsona bati bere identitatea ukatzen badiozu eta ordezkio identitate batekin bizi bada, delitua gertatzen ari da. Desagertuekin ere berdin. Desagertuaren gorpua agertu arte uneko gertatzen da delitua da. Beraz, preskripzio eta zigorgabetasun printzipioak ezin dira aplikatu”. Abokatuaren ustez, Espainiako Justizia bera ari da delitua egiten. “Auzitegi Gorena prebarkatzen ari da, jakinaren gainean epai bidegabeak eman dituelako eta gaizkileak ari delako babesten. Frankismoaren boterea oso indartsua da Espainian, oso errotua dago erakundeetan eta bereziki botere judizialaren goi karguetan. Zigorgabetasunaren eta ahanzturaren aldeko kultura oso nabarmena da”.

“Ziurrenik estradizio aginduak izango direnez, Espainiak ez ditu onartuko eta gaizkileak delituaren tokian egongo dira errefuxiatuak”

CARLOS SLEPOY, ABOKATUA

Servini de Cubria epaileak Madril eta Bilbotik bueltan, testigantzak bildu ondoren, aurrera egingo duelakoan dago Slepoy. “Delitu konkretuak zehazteko gai bagara, biktima eta arduradun jakinekin, epaileak deklaratzera deitu ditzake ustezko erantzuleak. Aurreikustekoa denez, inor ez da deklaratzera aurkeztuko eta atxilotze agindua eman beharko luke orduan epaileak. Horrek eragin oso boteretsua izango luke. Lehenengo eta behin, Espainian zigorgabetasuna erabatekoa denez, frankismoa epaitzeko ardura beste herrialde batek hartu behar duela agerian utziko lukeelako. Bestalde, ziurrenik estradizio aginduak izango direnez, Espainiak ez ditu onartuko eta gaizkileak delituaren tokian egongo dira errefu-

xiaturik, estatua babesle dutela. Era berean, guzti horrek beste efektu batzuk sorrarazi ditzake. Biktimei aurrera egiteko indarra ematen die, epaile eta fiskalak kolokan jartzen ditu eta beste toki batzuetan ere ekimenak abiatzeko aukera handitzen da, dela Giza Eskubideen Europako Epaitegian edo beste herrialdeetako epaitegietan. Garrantzitsuena aurrerapausoak ematen jarraitzea da. Gaiak ez dezala lo hartu, eta geroz eta oihartzun handiagoa izan dezala”.

Argentinako hedabideetan frankismoko biktimen bisitak izan du tokirik eta herrialdean giza eskubideen hainbat taldek babesa agertu diete testigantza ematera bidaia egin dutenei. Argentinako Atxilotu ohi eta Desagertuen Elkarteak, Giza Eskubideen Aldeko Ligak, Memoriaren Aldeko Institutuak eta Maiatzeko Plazako Amak eta Amonak, besteak beste.

Maiatzeko Plazako Amek 35 urte bete zituzten joan den apirilaren 30ean. Ostegunero egin duten bezala, plazara joan ziren egun horretan ere, zapi zuria jantzita. Bertan bildutako ehunka lagunei kontatu zizkieten haien testigantzak. Seme-alabak nola desagerrarazi zizkieten eta etxeoandre izateari utzi ziotela erresistentzia zibilararen eragile nagusia bihurtzeko. Lehenengoz plazan bildu zirenean, ezin zuten imajinatu ere egin, aurrean zein bide luzea zegoen. Haien seme-alaben hiltzaileak akusatuen aulkian eseri dituzte eta horixe da duten pozik handiena.

Akaso, egunen batean frankismoko krimenen arduradun batzuk ere ikusiko ditugu akusatuen aulkian. Elur bolak maldan behera jarraitzen du eta tamaina nahikoa hartzen badu zabalduko du bidea. ■



BESARO LANDA HOTELA



*Iratiko oihanaren
sarreran*



Tel.: 948 890 350
www.besaro.es
hotel@besaro.es

www.facebook.com/HotelRuralBesaro



Hala Bediren egitasmoa

Euskara hutsezko emisioa helburu

Hedabide asko kinka larrian direnean, asmo berri bat sortu da Arabako hiriburuan. Orain ele bitan diharduen Gasteizko Hala Bedik euskara hutsean hasi nahi du bigarren emisioa.

MIEL A. ELUSTONDO

IRAGAN OTSAILEAN, 34 irrati lizentzia adjudikatzeko lehiaketaren oinarriak aurkeztu zituen Eusko Jaurlaritzak. Haietarik herena euskarazkoak izango dira. Horretan, Gasteizko Hala Bedi irrati librean bi lizentzia lortu nahi ditu, bata euskaraz hasiko duen emisioarentzat nahiko luke; gaztelaniazkoarentzat, berriz, bestea. Egitasmoaren arduradunek –irratiazen batzarreko kideek–, azaldu digutenez, lehendik dator asmoa: “Hala Bedi irratiaren euskara hutsezko emisioa sortzeko ideia ez da berria, duela hamar bat urte ere kolektiboak aipatu zuen. Arrazoia agerikoak dira: Araban sekulako hutsunea daukagu. Ez dago euskaraz eta bertan ekoizten den irratiak, Aiaraldeko esperientzia izan ezik, hau da, Uhinak irratiak. Hala Bedi nola baitaiteko erantzukizuna ere sentitzen genuen”. Gogo hori areagotu baino ez da egin Jaurlaritzak lizentzia berriak banatzeko lehiaketa abiarazi duenean.

Egitasmoa definitzen ari dira oraindik, nahiz eta orain artean Hala Bedi erakutsi duen bidetik joko duten: “Autogestioa eta asanblada izango ditu oinarri, eta jendearen parte-hartzeari esker joango da indartzen. Gasteizen horrelako egitasmo bati ekiteko aukera eta baliabideak dituen bakarrenetakoak gara, eta horregatik hartu genuen erabakia”.

Hala Bedi euskaraz

Ele bitan jardun du orain arte Hala Bedi, %40 euskaraz, gainerakoa gaztelaniaz. Proporzio horri eutsirik ere, ordea, euskara hutsezko bigarren

**BATEN PREZIOAN BI,
EGIN ZAITEZ
HALABELARRI**

Geureak eta bi ematera goaz!

Kanpainarekin hasiak dira eta hiru pauso aurreikusi dituzte: jendeari proiektua ezagutaraztea; bazkide berriak egitea eta 2013an euskara hutsezko emisioarekin hasia.

emisioa dute helburu. Ez dira hutsetik abiatuko, dena den: “Azken urteotan aurrera egin du Hala Bedi irratia euskarazko produkzioan. Bera da Araban euskarazko ekoizpen propioa daukan irratia bakarrenetakoa. Horra, esatera-ko, arratsaldeko ‘Zerabidea’ saioa, hiru ordu irauten duen magazina”. Baina ez da adibide bakarra. “Denetarikoa irratsaioak sortu dira euskaraz azken urteotan, eta barrura begira ere nabarmena da euskaraz egin duen bidea, duela urte batzuetatik hona. Emisio elebidunak bere bidea egingo du, bai, eta gero eta euskara gehiago sartzea litzateke naturalena; hori da gure asmoa, behintzat”. Hala ere, euskara hutsezkoa dute xede berri: “Gure irratia erantzutaz inflexio puntu bat da erabaki hau, ezinbestean”.

Asmoa plazaratu dute, eta abian da laguntza biltzeko kanpaina ere. Leloa ere badu: *Genreak eta bi ematera goaz*. “Lehen helburua jendeak proiektu berria ezagutzea izango da. Bigarren urratsa, bazkide berriak egitea, aurrerantzean bi irratia baten prezioan izango dutela aldarrikatuz”. Hirugarren helburua izango da garrantzizkoena: “Datorren urteari begira, emisioarekin hastea. Badakigu lan egin beharko dugula proiektua aurrera ateratzeko behar ditugun bazkide guztiak lortzeko, eta egitasmoa indartzeko jendeak parte har dezan ere saiatu beharko dugula, baina ez dago beste aukerarik. Jendeak euskarazko irratia baten beharra ikusten duen neurrian beraien laguntza ematea nahi genuke eta horretarako gure asmoen berri eman beharko diegu Arabako biztanleei”. Erakundeek lagunduko duten ikuskitzen da. Hala Bedi, bestalde, ez du nortasun zeinurik galdu nahi. “Guretzat autogestioa oinarritzakoa da. Etor-kizunean erakunde publikoetatik diru-laguntzak hartzea ez da guztiz baztertzen, ez gara dogmatikoak horretan, baina momentuz ez dugu bide hori hartuko eta argi daukagu

gure diru baliabideak inoiz ez direla erakunde publiko edo pribatuaren diru-laguntzen eskuetan egongo”.

Krisi aroan baitezpadakoa da bizi-raupen ekonomikoa. Hedabide asko kolokan den garaian, isildu den sasoian, gorago jaso nahi du bere burua Hala Bedi. “Gure biziraupena erakunde publiko eta pribatuaren eskuetan ez dagoen neurrian, lasai gaude. Autogestioak horixe erakutsi digu, lortu beharrekoa geure kabuz lortu beharko dugula, horretarako ditugun baliabideak aprobetxatzen”. Ahal denean, dena; ezin denean, ahal dena: “Aukera dagoenean indar egi-

“Azken urteotan aurrera egin du Hala Bedi irratia euskarazko produkzioan.

Bera da Araban euskarazko ekoizpen propioa daukan irratia bakarrenetakoa”

HALA BEDIKO ARDURADUNAK

ten eta ezin denean, berriz, daukazu-narekin konformatzen. Asko esatea da beharbada, baina datozen urteetan autogestioa eta *“do it yourself”* filosofia pil-pilean egongo direla esango genuke”. Kritika hitzik ere badute erakundeekiko morrontzaren inguruan. “Azken urteetan proiektu gehiegi jarri dira instituzioen momentuko borondatearen esku, eta horrek baditu arriskuak. Guk jendarteak babesa ematen digun neurrian egingo dugu aurrera. Maiz errepikatzen da, eta balioa galdu duen zerbait ere bada, baina gure bazkiderik gabe Hala Bedi ez dauka zentzurik, beraiek dira benetan irratia honen arima”.

Inoiz esan dutenez, “freskoa, hurbilekoa, zirikatzaila eta gustu eta adin guztietarakoa” nahiko luke-te Hala Bedi, hala oraingo ele bikoa, nola euskara hutsezkoa. Eta lanean

ari dira, hori horrela izan dadin. Lehenik eta behin, prestaketa lanak egingo dituzte uda atarian. “Ekainaren hasieran tailerrak egingo ditugu nahi duen guztiarentzat. Unibertsi-tatean egingo den hitzaldi batekin hasiko dira tailerrak eta hiru egunez ariko gara irratia egitea zer den ikas-ten. Zerbait dinamikoa eta parte hartzailea izango da. Tailer hauetatik etorkizuneko proiektuan parte hartuko duen jendea ateratzea espe-ro dugu. Datorren ikasturtean ere egingo ditugu beste tailer batzuk, denon artean proiektua zehazteko eta edukiz betetzeko”.

Hala Bedi irratia modu jakin bat egiten duela erakutsi du orain arteko ibilian eta, ageriko denez, horixe eutsiko dio euskarazko emisioan ere. “Guretzat oso garrantzitsua da Gas-teizko elkarteek beraien ahotsa edu-kitzea gure irratian. Beste komunika-bideetan entzuten ez diren edo isilarazten diren gizarte eragileak eta kolektiboak beraien lekua izango dute euskarazko irratian. Horrekin batera, beste irratia batzuetan entzu-ten ez diren musika taldeak zein beste irratietan lantzen ez diren gaien inguruko saioekin osatu nahi genuke programazioa”. Zehazteko moduan dira asmoa, gainera. Dena ez da gaurkotatzen izango: “Aisialdia, sexua, bidaiak, sukaldaritza... jendea-ekin hitz egin beharko da lehenengo eta gero pausoz pauso aurrera egin. Martxan jarri ahala, aliantza berriak sortuz joango dira, hori seguru”. Aliantza horietan, Arrosa irratia sarea dute lehenengo lagun, hau da, Euskal Herri osoko hainbat irratia biltzen dituen. Herri eta eskualde mailakoak, gehienak. “Bai, garrantzi berezia ematen diogu Arrosa irratia sareari, horrek eman dezakeenari. Bertan elkartzen garen Euskal Herriko irratien artean, pauso berriak eman beharko ditugula aurrei-kusten dugu”. ■



Babeslea: Hernaniko Udala



...eta busti egin nahi dugu

“Axola ez bazaizue euskaraz nola egiten duzuen entzungo dut”

LAGUN TALDEA elkartu gara Bilbon. Mahaiaren bueltan hitz eta pitz ari gara. Taldeko baten senidea agertu da, aulkia hartu eta gure ondoan esertzeko baimena eskatu du, “me gustaría escucharos hablar en euskara”. “Bai, bai ez dago arazorik”. Minutu batzuk igaro ditu gu entzuten. Alde egin duenean lagun kuadrillako batek ezusteko desatsegina hartu du: “A, baina ez al da espainiarra? Nik uste nuen kanpotarra zela eta jakin-minez eseri dela gu entzute-

ra”. “Bilbotarra da nire senidea, euskaraz eta azkar hitz egiten ari ginela konturatu da eta arretaz entzuteko grina sartu zaio”. “Zenbat urte dauzka?”. “20”. “20 urte, bilbotarra eta euskaldunak euskaraz hitz egiten entzutera eseri da gure ondoan?”. “Sikiera borondatea erakutsi du eta umil eskatu du baimena”. “Ez naiz bere aurka ari, egin duenak harritu nau”. “A ereduan ikasi du, senide guztiak erdaldunak ditu, ni salbu”. “Gauza bat da euskaraz ez hitz egitea, eta beste bat euskaldunei baimena eskatu eta aulkian esertzea, hizkuntza sekula entzun izan ez balu bezala. Gaurko kezka ez al da bada

ezagutza asko igo dela eta erabilera-rekin daukagula arazoa? 20 urte ditul”. “Bilbon bizi da, gaztelaniaz ikasi du; zenbat aldiz entzungo zuen autobusean Euskadi Irratia?”.

Euskalduntze alfabetatzean urte-tan aritutako laguna lur jota geratu da, harrituta dagoela dio –agian ez du sinetsi nahi 2012an 20 urteko gazteak egoera horretan egon daitezkeenik-. Ingurukook pragmatiko agertu gara: A ereduan ez zuen gauza handirik ikasiko – Bilbon euskara entzuteko aukerak ez dira ikaragarriak – berak ere ez zuen belarria jarriko... Pragmatikoak izan garela diot, baina seko harrituta geratu denak pentsatuko du etsiak hartu gaituela. Lagunak horrelako egoeratan harritzeko eta sumintzeko gaitasuna ez galtzea aldarrikatu du. Beste batzuek onartua dugu, euskararen normalizazioaren bidean, halako errealitate gordinek ere behin baino gehiagotan abiapuntu izan beharko dutela.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

TALAIAN

Bankariak, gaizkile lepazuridunak

Espainiako Estatuan banku-eskandalu berria sortu da. CajaMadrid, Bancaja, Caja de Canarias, Caja de Ávila, Caixa Laietana, Caja Segovia eta Caja Riojaren arteko fusioaren ondorioz sortutako Bankia, diru publikoz erreskatatuko dute, baita euskaldunen diruaz ere. Higieziei loturiko 31.800 milioi euroko aktibo problematikoak ditu, baina lehenago ere 4.465 milioi euro jaso zituen FROBen (bankuen birmoldaketarako funtsa) laguntza publikoari esker. Orain, PPren Espainiako Gobernuak, hauteskundeetan agindutakoaren kontrara, 10.000 milioi euro txertatu nahi ditu, Aznarren Ekonomia ministro izan zen Rato eta beste gogaide batzuk gaizki kudeatu duten kutxan. Itsasontzia hondoratu baino lehen, Rato kapitaina badoa; orain arte soldata gozoa izan du eta hemendik aurrera ere indemnizazio eta pentsio plan gozoak izango ditu. Bankia adibide garbia izan da: politikariek euren gerrak eta interes ilun pertsonalak eraman dituzte kutxen administrazio kontseilueta. Badirudi egoera larri honetan ez dagoela ezer depuratzeko.

Zer gertatzen da erakundea hondamendira eraman duen administrazio kontseiluarekin? Arduradunek nola segi dezakete minutu bat gehiagoz kontseilu horretan? Non dago Estatuko fiskal nagusia funts publikoetatik egingako txertaketa milioiudun eskandalagarri horren aurrean? Lepazuridunen delinkuentzia nahierara dabil, eta bankariei inork ez die eskua gainean jartzen, areago, eurek sortutako galerak “sozializatu” egiten dira eta diru publikoa erabiltzen da, bote publikotik zurruputzen segi dezaten. Anartean, familiariek eta enpresa txiki eta ertainek kredituen iturria itxita dute, nahiz eta Europako Banku Zentralak martxoan 227.600 milioi euro bideratu zituen Espainiako Estatuko bankuentzat. Bankuek euren epemugak ordaintzeko eta zor subiranoa erosteko erabili dute, errentagarritasun askoz handiagoarekin. Lapurrak! Gaizkileak!

Juan Mari Arregi



BAHEA

Txerra Rodriguezek Garaigoikoa blogean esanak: “Gurean bi komunitate ei daude. Mila aldiz entzun eta irakurri dugu. Azkena Joseba Kamiori #sarekobiakuntzak jardunaldian. Eta bai, egia da, komunitate bi daude gurean, baina ai ai ai zeintzuk dira komunitate horien mugak? Zeren inguruan ardazten dira ba?

Hizkuntzak definitzen ditu komunitate biak? Hizkuntzak ala beste zerbaitek? Nire ustez, hizkuntzak ez ditu definitzen komunitateak gurean: batzuontzako akaso bai, baina gehienentzako ez. Izan ere, zein dago zugandik hurbilen: euskaraz egiten duen UPN ala Sarkozyren botantea ala euskaraz ez dakien Bildu zein EAJ bozkatzen duena?

Hizkuntzak gurean emozio-karga sakona du, identitatea ematen du, nortasuna. Baina ez da erabakigarria nire ustez komunitate bateko zein beste ko ideak bereizteko. Ez da erabakigarria: abertzaletasuna da oraindik orain balizko bi komunitate horiek bereizten dituen”.

Akabo, listo

PATXI LOPEZEN Gobernuarenak egin du. Akabo. Listo. Hauteskundeak noiz, hori da orain Eusko Jaurlaritzak pentsatu beharko duena eta, edozein kasutan, urtea amaitu aurretik izatea litzateke logikoa. Gobernu hau koordinada zehatz batzuetan sortu zen: ezker abertzalearen ilegalizazioa, ETA indarrean oraindik, Zapateroren Gobernua Madrilen eta krisiaren hastapena. ETak iazko urrian bere jardura armatua amaitutzat jo zuenetik, aldiz, PSE-PP Gobernuaren sorrera koordinadak erabat aldatu dira eta, gutxiengoan geratzekotan, logikoa da beste gobernu berri batek erantzutea sortutako errealitate berriari.

Legitimitate politikoaren ikuspegitik hankamotz jaio zen Lopezen Gobernua; baina ez da ahantzi behar, halaber, hauteskunde haietako bigarren alderdia izan zela, EAJren atzetik. Eta horrez gain, nola aterako ditu, esate batera, udalen edo aurrezki kutxena moduko lege garrantzitsuak? Egoe- ra eta hauteskunde giro honetan, gutxi dira beste alderdiekin Lopezek negoziatu ahal izango dituenak. Gainerako indar guztiak ondo arduratuko dira bere bakardadea ahalik eta gehien azpimarratzen, eta horrela, azkenean, hauteskundeei begira bozgorailu erraldoia den Lehendakaritza hori, norbere aurka bihurtzen da bizpahiru porroten ondoren. Adibide bat: Jaurlaritza 2013ko aurrekontuak lantzen ibiliko da dagoneko, edo laster ekingo dio, uda ostean alderdiekin lanean hasteko. Norekin negoziatu behar ditu hauteskunde atarian? Logikoa, urrian edo azaroan hauteskundeak deitzea litzateke. Izango ote du aurkari espetxeratutako Arnaldo Otegi, ezker abertzaleko analistaren batek iradoki duen gisan?



ALDATU finantzen mundua zulo beltz horrek dena irentsi aurretik. Hautsi egungo Europako diruaren ziklo madarikatua, bestela jai. Ez dago egungo krisi zikloa moztuko duen beste biderik. Hau da zulo beltzaren zirkuitua: EBZk 1.000 milioi euro eman dizkio maileguan Bankiari, %1eko interesean, gero honek Espainiako Gobernuari %4an. Bankiak 3 puntuko etekina atera du, baina hala ere galerak ditu, eta Rajoyren Gobernuak bere gain hartzen du beste 1.000 milioi euro ordainduz. 1.040 milioi euro gastatu ditu. Orain bai, orain Bankia errentagarria da eta berriz pribatizatu daiteke, bere jabe eta kudeatzaileek osteratu diru asko irabaz dezaten.

Zenbakiak aldatuta, hori da Europar Batasunean eta Espainian gertatzen dena. Zergatik? Ekonomiak funtziona dezan bankuak funtsezkoak direlako. Jakina, are eta funtsezkoagoa handiagoa bada.

Zazpi aurrezki kutxekin sor dadila, beraz, banku handi bat: 10.000.000 bezero-aurrezle, 22.000 enplegatu eta 44.000 akziodun. Listo da Bankia, bere tamainagatik inolaz ere erortzen utzi ezin daitekeena. Eta Santander eta BBVAren osasuna askoz hobeagoa ote da akaso?

Ados, bankuak funtsezkoak dira ekonomiak funtziona dezan: baina orduan zergatik ez dio ematen zuzenean mailegua EBZk PPren Gobernuari, eta honek 1.040 milioi euro aurretuko luke? Baina ez, halakorik ezin da, EBko itunek ez diotelako uzten EBZri gobernuari zuzenean mailegatzen. Eta askok pentsatzen du, hiru hilabetetan posible bada Gobernuak zero defizitarekin itotzen dituen egonkortasun ituna eraikitzea, zergatik ez da posible beste hirutan finantza arauak aldatzea eta EBZk dirua gobernuari zuzenean mailegatzea? 2012ko Espainiako Gobernuaren aurrekontuko partida batek zera dio: "28.300 milioi euro bankuei interesak ordaintzeko".

Ondorioak sufritzearen poderioz, greziarrek hobeto ulertu dute zulo beltzaren kontua eta horrexegatik, herritarren artean gero eta indar handiagoa hartzen ari da eurogunetik ateratzearena. Eta, inkesten arabera, hauteskundeak berriz errepikatuko balira, seguruenik gertatuko den lege, Syriza ezkerreko alderdia litzateke garaile eta gobernua eratzeke moduan. Ondoren, ekonomia nobel sari Paul Krugmanek dioenez, Grezia eurotik atera eta Espainian *corralittoa* jarriko litzateke indarrean. Espainian ere herritarrek bozkatu dute PP, bere garaian greziarrek PASOK edo Demokrazia Berria bozkatu zituzten moduan. Nor ote Espainiako Syriza?



Mediku jauna: botika gehiago ez, entzutea eskatu dizut

Mediku asko botiken hornitzaile bihurtu dira, osasun sisteman espezialista larregi eta jeneralista gutxiegi da, doktoreek teknologia asko darabilte baina denbora laburregia daukate gaixoentzat, familiako sendagileei sistemak arreta gutxi eskaintzen die garrantzitsuenak izanagatik... Mediku kritikoak dira horrela mintzo.

ETXEKO MEDIKUA EZ DAGO MODAN. Teknologiarik sofistikatuena darabiltzaten doktoreak azaltzen dituzte hedabideek. Espezialistak baino *hiperrespezialistak*, terapiarik karuenen jabeak, robotekin operatzen edo saguaren gehi gizakiaren geneen manipulazioz ekoiztutako injekzioz *txutatzen* zaituztenak.

Zure ohiko medikua, aldiz, familiako edo etxeko medikua, ohikoa, jeneralista, *kabezerakoa*... horri esku artean daukan sendabiderik ahaltsuena kamusten diote egunetik egunera. Gaur zenbat minutu dauzka zuretzako, zazpi, bost? Ez dira aditzen etxeko mediku entzuten dakien eta humanista aldarrikatzen dutenen ahotsak, horretarako arrazoi sendoak azaltzen dituzten arren.

Sekula sobera famatuko ez dugun *Pharmacritique* gunean bi elkarrizketa mamitsu plazaratu ditu Pierre Biron mediku eta irakasle erretretadun quebeccarrak. Farmaziako multinazionalak medikuen jakintza nola desbideratzen duten azalduz artikulua plazaratuak dituen Bironek, elkarrizketa birtual moduan laburbildu ditu –Bironek berak egin ditu galderak eta erantzunak– mediku batek eta soziologo batek lanbidez idatzi dituzten liburuak.

Marc Zaffran doktoreak eriekin egin lanaz gain 1980ko hamarkada-

tik liburu andana argitaratu du, asko fikziozkoak, Martin Winckler ezizezez. Zaffranek azkena ondo ezagutzen duen errealitateaz egin du: *Profession, médecin de famille*. Desagertze bidean dirudien lanbide funtsezkoaz, alegia

Zaffranen esanetan, familiako medikuntzak maila handia eskatzen du, jakintza zientifikoa eta harremanetan, sormena ere bai: “Especialitate guztien artean, familiakoa da zirraragarriena eta esker onekoena”.

Baina bide gogorra egin behar da ofizioa ikasteko, unibertsiteteetan eta ospitaleetan ikusitakoetatik oso bestelako gaixoei egiten delako topo egunerokotasunean. “Oso gutxi dira liburuetan azaltzen diren sintomak bere horretan aipatzen dituztenak. Oso bestela, sintoma bitxiak kontatzen dituzte, ulerteziak, hitz nahasitan azalduak...”.

Ospitaleko kontsulta batetik gaixoak fite egin nahi omendu hanka; etxeko medikuarenean ez du alde egiteko presarik. Eriak eskatzen duen estreinako gauza denbora da, entzun diezaiotela.

Haragizko gizon eta emakumeok ez omen dugu sufritzen unibertsiteteko liburuek deskribatzen dituzten kategorien arabera. Sarritan medikuak zerbait emango dio emateagatik eta denborarekin sendatu egingo da. Bestean ez daki nola azertatu.

Wikimedia gunetik hartutako irudian, medikua herritararekin solasean. Marc Zaffran doktoreak idatzi duenez, ez dakiena medikuari gaixoei erakusten diote. Jardun ahala familiako medikuak ohartzen dira gaixo bakoitzak, familia bakoitzak, daukala esperientzia berezia, entzuten jakinez gero ezagutu dezakeena. “1980ko hamarkadatik ezaguna da gaixoei beren kexak lasai azaltzen uzteak ez duela kontsultako denbora luzatzen, eta aldiz bulegotik herritarra asebetetze sentimendu batekin ateratzen dela. Elkarrizketari leku handiagoa eman behar zaiola sendagintzan”. Badirudi, ordea, gure inguruetan osasungintzan egiten ari diren mozketen pagatzaile nagusiak farmaindustria ez baina horietan direla: gaixoarekin egoteko gero eta asti laburrak dute familiako medikuak eta beren sentsazioak azaldu nahi dituzten eriak.

“Medikuak ez dakiena gaixoak erakutsiko dio”, Zaffranen hitzetan. Behin ama batek 12 urteko alaba eraman omen zion, oinaze txiki bat zeukalako sabelean. Zaffran doktoreak baztertu zuen apendizitisa, baina amak horixe izan behar zuela, seme zaharrenak ere eduki zuela sintoma berdinekin. Agian bakeagatik, espezialistarengana bidali zituen... eta bai, apendizitisa zen. Amaren bihozkadak arrazoi.

Axaletik ikusita, familiako medikuntzak atzeratua dirudi tresneria eta botika sofistikatu hornitutako espezialitateen aldamenean. Baina egia oso bestelakoa da: “Teknologien anabasa hori zaintzailearen eta gaixoarekin arteko hesi bat da. Biok elkarrekin bide bat adosten badute, orduan teknologien erabilera burutsuagoa da, merkeagoa, ez hain gogorra. Espezialistekiko harremana hain urria izateak dakar gaixoei botika gehiegi kontsumitzea, sobera frogatzea behar izatea, mediku bakoitzak bereak agintzen dituelako”.

Pribatizazioa jada gertatu da

Pierre Bironen bigarren elkarrizketatua Jean Peneff soziologoak da, *La France malade de ses médecins* (Frantzia bere medikuek gaixotu dute) liburuaren egilea. Soziologian Chicagoko eskolaren kideztat



jotzen den Peneffek honela laburbiltzen du medikuntzaren gaurko arrisku nagusia: “Betidanik ezagutu den sendagilea hornitzaile bihurtzeko zorioan dago”. Neuririk gabe agintzen omen dituzte botikak, kontsultak ugaritzen, espezialistengana edo kliniketara bidaltzen, horrela ezinezko bihurtuz gaixoaren osasuna arrazionalitatez artatzea.

Hala ere beren buruak oso bestela zaintzen dituzte omen sendagileek, Peneffen esanetan. Zuhurrago jokatzan dute beren buruak diagnostikatzean, botiken erabileran bezala, “batez ere gaixoei hain erraz agintzen dizkieten psikotropikoean”.

Peneff ez da, urrik eman ere,

horrelakoak idazten lehena, aurretik Philippe Meyerrek (*L'Irresponsabilité médicale...*) eta beste askok idatzita-koak bereganatu ditu. “Especialista gehiegi dago eta jeneralista gutxi, hauek gainera gaizki banatuak. Jar-duera hiperteknikoak garamatza medikuntzak bereak dituen ariketa klinikoaren eta tradizio humanistaren galbidera. Hautaketa frogan espirituan ere ikusten da hori. Gehiegi garatu da medikuntzan dugun fedea, horrek ekarri du tratamendu eta botiken agindu behar hori”.

Botikek gero eta pisu handiagoa dute osasungintzaren aurrekontuetan, pisu nagusia. Jendeek ez diote arretarik egiten ez elikatze-ko moduari eta ez ariketa fisikoari,

medikuek ez diete aski azaltzen bizimodua aldatzeko daukaten premia. Medikuek botikak eta frogak agintzen dituzte, eta horrela sustatzen dute sistemaren deriba.

Gaur farmaindustriaren eta klinika pribatuen publizistek dagitena 1923an aurreikusi zuen Jules Romainek [*Knock ou le Triomphe de la médecine* antzerkiaren egilea], Peneffen iritzian: prebentzioa oinarritu beldurrean, produktu berrien propagandan edo espezialite teknikoetan. Propaganda aldizkari espezializatuek egiten dute, iritzi-emai- nagusiek, lanbideen elkarteek eta unibertsitateek, eskuliburuen egi- leek, gaixoen elkarteek, eta denek jasotzen dituzte industriaren diru- laguntzak.

Zein pisu dauka diruak, galdetu dio Bironek Peneffi. “Dirua da motorra (...) Kosta ahala kosta, diru asko irabaztea, baita jendeak lanbideari errespetua galduko badio ere, zer esanik ez krisiaren eta lan- gabeziaren garaiotan. Beste aldetik, agintariak gaizki daude informatuta. Osasungintza ez dute ondo ezagu- tzen, emaitzak, benetakoa kosteak, eta horregatik ez dago alor askotan ez behar bezalako arautzerik eta ez ikuspegi etiko garbirik”.

Pribatizazioak are larriagotzen ditu arazoak, osasungintzaren gastu handiegiekin estaltzen baita gizar- tearen oinarritzko beharrak ase gabe daudela. Baina entzun Peneffi: “Jada ez da arriskua, osasungintza- ren pribatizazioa gerta- tu da, sistemaren ilunta- sunak eragozten digu ohartzea ilunpean nork kudeatzen duen”. ■



ZINKUNEGI OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Aingeru Epaltza

Hainbat maite izan baititugu

Hainbat maite izan baititugu, kotoi artean hezi ditugu, den larrerik luzeenean. Zer eskatu, huraxe eman diegu. Berek sumatu baino lehenago aitzinatu gatzazkie haien premi. Ondoan izan gaituzte beti, laguntzaile, gidari, arazo konpontzaile. Ez dugu haien lepo gainean karga sobera ezarri nahi izan. Ez ditugu sufritzen ikusi nahi izan. Ez ditugu galdu nahi izan.

Hainbat maite izan baititugu, nahiago izan ditugu paretetara makurturik goitika ikusi, ezen murru parean tente, afixak itsasten. Nahiago bajeretan sartuak, play-stationarekin jostetan, karrikan kajeroei su ematen baino. Zernahi egin dugu euskarak –herriak, aberriak, dena delakoak– preziorik izan ez zezan haiendako. Zernahi, gure bisita bakarrak Erasmuskoak izan zitezen, Vilniusera, Cohimbrara, Heildelberg-era, eta ez Salto del Negrora, Puertora, Fresnes-era. Aktiboki egin dugu lan haien kemena desaktibatzen. Baliabide guztiak erabili ditugu gure kumeak bizitzaren alderdi arrisksuetatik apartatzen.

Bai, egia da. Ez da dena gure merezimendua izan. Ez da guztia gure errua izan. Anitzek ez zuten sobera behar. Guhaurek sortu irakaskuntza sistemak ere bere zuloak ditu, bere hilotzak, armairu barrenean altxatuak. Nire adinekoek apezak nola, hala gorrotatzen euskara –herria, aberria, dena delakoa– gure ikasgeletatik atera den batek baino gehiagok. Halako erresuminik gabe ere, bertze batzuek isil-isilik egin digute ihes. Haize alde. Nork lehen harria jaurtiko? Ez da denen bizkarrerako egina bazterrekoa izatea. Bazterrekoa. Bazterrezkoa.

Ahalegina ez da ustela izan. Borroka armatuaren aroa iraganik, sarraskitik onik edo atera dira gehienak. Gutxi batzuek bai zik –nahi baino aise ere gehiagok– ez dute tortura, kartzela, erbestea, derrota ezagutu. Are gutiagok –nahi baino aise ere gehiagok– dituzte eskuak odolez zikindu.

Begira iezaiezue. Gazte arruntak dira ia



DANI BLANCO

guztiak. Tira, ez hain arruntak. Kaixo erraten dute, eta agur. Eta janzkera apur bat diferentea izaten dute. Eta bertzelako musika entzuten dute gehienek. Gaitz hori ere sendatuko zaie, denborarekin. Gainerakoan, bertzeak bezalakoak ditugu. Gazteetan gazteenak mozkortzen dira, drogatzen dira, larrua jotzen dute, orenak egiten dituzte pantaila tiki nahiz handietara itsutuak eta, gehienek, zerbait ikasten dute. Helduagoak, berriz, mozkortzen dira, drogatzen dira, larrua jotzen dute, orenak egiten dituzte pantaila tiki nahiz handietara itsutuak eta, gehienak, langabezian daude. Bertzeak bezalaxe. Bertzeak bezain pasiboak, bertzeak

bezain sortzaile eskasak, bertzeak bezain geldoak. Bertzeak bezain esperoan, beren arazoak nork noiz konponduko.

Ez ditugu sobera ideologizatu nahi izan, beldurrez-eta ziega bat joko ote zuten. Antolaketa herra itsatsi diegu, hiltzaile bilakatuko ote ziren goganbehartuta. Sormenerako hegoak moztu dizkiegu, haien ametsak denon amesgaizto bihurtu ez zitezen. Orain, zoaz haiengana mintzatza belanaldi gisa duten erantzukizun historikoaz eta arrasto bat –arrasto bat, bederen– utzi beharraz. Zertaz ari zaren ere ez dira berehala jabetuko.

Gauzak aldatzen omen dira.


Aro berri batean sarturik omen gaude. Ongi etorri aldaketari. Ongi etorri aro berriari. Badugu premia.

Ez dakit Bilbon edo Donostian. Ez dakit Gasteizen edo Baionan. Nire bizilekuan, berrogei urteko gizon-emakume gordinek gaztetzen dizkigute bilerak eta mintzaldiak, gaztetzen gure hedabideen erosleria eta ikus-entzuleria, gaztetzen gure irakurle eta desirakurle taldeak. Inon ez da belanaldi berririk ageri, txanda eske. Gure aldareetatik ostiaka eraitsiko gaituen errebolta oihu-kexa-arrengurarik ez da aditzen bazterretan. Erretiroa hartzeko bezperan gaude, eta inor ez dugu ikusten, gure gibelean. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Besaro Landa Hotela

Bi gau
bi lagunentzat

Iratiko oihanaren sarreran
Irigoien, 5
Itzaltzu NAFARROA

www.besaro.es

1



Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidedunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

2



Inguru Abentura

Arroilak (II. maila)
3 harpideentzako bina sarrera

San Juan kalea, 18
Albeniz ARABA

www.inguruabentura.com

3



Euskal Eskola Publikoaren 21. jaia

3 kamiseta
mutilentzako opari

www.ehige.org/jaia2012

4



Illimani

2 liburu opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2321. Argia)

ATXASPI HOTELA

- Xabier Otegi Irastorza (Gasteiz)

JORGE OTEIZA FUNDazio MUSEOA

- Fatima Gonzalez Egiluz (Donostia)
- Eneko Maioz Ganboa (Orexa)
- Jose Ignacio Villar Saez (Bilbo)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Mikel Ozaita Azpiroz (Ibarra)
- Pedro Azkue Berasaluze (Zarautz)
- Unai Bergaretxe Leibar (Arrasate)

PATTA TA SENDAEZINAK CDa

- Iñaki Zubeldia Otegi (Ikaztegieta)
- Aitor Zuberogoitia Espilla (Durango)
- Javier Duoandikoetxea (Arrigorriaga)
- Josu Iztueta Azkue (Tolosa)
- Irune Iturbe Arriola (Aretxabaleta)

888 TXISTE

- Jose Luis Zubiaurre Ulazia (Mendaro)
- Jose Mari Ogando Rodriguez (Lekeitio)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

gunea


argia

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralerara 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea



Zero Zabor *bloga*



*Hondakinik onena,
sortzen ez dena*

Hondakinen inguruan Euskal Herrian
eta munduan sortzen diren informazio,
dokumentu eta iritzien agertokia.

